



P. LAZKANO – A. ZAVALA

TIRO TARTEAN BERTSOTAN

TIRO TARTEAN BERTSOTAN

AUSPOA LIBURUTEGIA
(168)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 – Tolosa, Guipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

PATXI LAZKANO
ANTONIO ZAVALA

TIRO TARTEAN BERTSOTAN

AUSPOA LIBURUTEGIA
1983

Azalekoa irudia, *Marqués de Santa María del Villar*
argazkilari pamatua zanaren argazki batetik egiña da.
Sangüesa'ko Frantzisko Xabier Beunza'ren eskutik jaso
degu. Milla esker berari.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Guipúzcoa)
Fotokonposatzalle: LENTE - Estella
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
Depósito Legal: NA. 1.065 - 1983
ISBN 84 - 7158 - 111 - 6

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
Crucero de la Montija	13
Santander	31
Peña Lasa	35
Lerín	45
Teruel	59
Aragon	69
Pirineo	81
Calatayud	91
Beste zenbait bertso	95
Kataluña	101
Alicante	107
Almansa	113
Kataluña	121
Etxera	127
(1941) Estropada	131
Otxoki nere jaiotetxeari	137
Otxoki nere jaiotetxeari bigarren aldiz .	145
Gaur ere berdin	149
Bertsolaria	151

ITZAURREA

Patxi Lazkano, bertso biltzen asi berria nintzan artan ezagutu nuan, 1959 urtean. Otxoki bere jaiotetxean ezagutu ere.

Otxoki baserri ori Ametzagaña mendiaren babesean zegoan, Donosti'tik Altza'ra zijoan mendi-bidearen bazterrean. Bañan orain urte batzuk bota egin zuten, beste emeretzi baserriekin batera.

Bertsolari zarren makiña bat bertso ta ateraldi jaso nion Patxiri, beraren baserriko sukaldean edo inguruko fruta-arbolen itzalpean.

Baña beste bertso batzuk ere eman zizkidan, bere-bereak oiek, orain artean izkutuan egon diranak, Patxiren eta nere gogoaren kontra bada ere.

Izan ere, Patxi bera ere bertsolaria degu, gerra aurretik lagun-artean-eta kantatzen asia.

Gerra asi zanean, ordea, bera 37'ko kintoa izanik, aren kinta deitu zutenean, joan egin bear izan zuan, beste ainbestek bezela.

Bañan Patxik, naiz tiro tartean ibilli, etzion bertso paratzeari erabat utzi. Burgos edo Aragon aldetik, Albacete'tik edo Kataluña'tik, bere eskutizetan bertso ale batzuk sarritan bialtzen zituan etxera, batean iru, bestean lau, urrengoan sei.

Bertso oiek ere jarri zituan Patxik gure eskuetan. Batzutan, berak andik bialdutako papera bera. Bestetan, berriz, orduko papera galduta zegoan, bañan Patxiren anai Iñaxiok buruz ikasiak zituan eta aren aotik artu genituan.

Bañan bertso oiek, orain urte batzutako agintarien aurka bein edo bitan zerbait esaten baitute, ezin aien denboran argitaratu.

Gauzak aldatu ziranean, Patxirengana joan eta onela esan nion:

– Orain lengo konturik ez dago. Zure bertso oiek argitara aterako al ditugu?

– Bai, nigatik –erantzun zidan.

– Ederki. Bañan sail bakoitzaren aurretik bertso oiek nundik bialduak diran jarri bear da, ta bai gañontzeko argibideak ere, jendeak ondo ulertuko baditu.

– Ea, ba: irakurri bertsoak. Esango dizut.

Ala, bertsoak irakurtzen asi nintzan eta Patxik onela esaten zuan:

– Bai. Oiek, Pirineos'etan giñala jarri nituan. Beste oiek, berriz, Almansa'n. Ola ta ola giñan, au ta ura gertatu zitzaigun, lagun bat etorri zitzaidan bertso-eske...

Bai kontaera aberatsa aren aotik zetorrena. Ni papereratzen alegindu nintzan. Bañan bereala etsi nuan. Aren ugaritasunak gañez egiten baitzidan. Onela esan nion:

– Alperrik ari gera. Orrela ez degu itxurazko lanik egingo. Urrengo batean, manetofon ta guzti etorriko naiz, tresna orrek bildurtzen ez bazaitu beintzat.

Aren erantzuna:

– Katxarro orren aurrean bertsoan ere jardun izan gera. Ez gera ba izketan ikaratu-ko. Etorri lasai.

Ala, urrena alkarrengana bildu giñanean, manetofonoa mai gañean jarri nuan, Patxi kontu-kontari asi zan eta iru orduko jarduna jaso nion.

Oiek papereratu nituanean, berriz joan eta aldi artan ordu t'erdiko saioarekin etxeratu nintzan.

Urrengo joan-aldian, berriz, ordu betekoa artu nion.

Kontaera oiek danak, bertsoak tartean dirala, paper garbira pasa nituanean, laugarren bixita egin nion Patxiri, bion artean esan moduan egindako liburua berak arretaz irakur zezan, okerrik baldin bazan zuzentzeko eta zerbait falta baldin bazan osatzeko.

Berak lan ori bukatutakoan eta nik azken orrazketa egindakoa, Patxi eta bion alegi-ñak eman duan frutua eskeintzen diogu irakurleari.

Beste iru bertso-sail ere baditu Patxik gerraz geroztik moldatuak. Oiek liburuaren bukaeran jarri ditugu. Baita bera bertsoan nola asi zan eta bertsolaritzari buruz zer iritzi dauzkan adierazten duan beste atal bat ere. Bañan gerrako kontuak eta bertsoak betetzen dute zatirik nagusia ta zabalena.

Erderazko esaera zar batek onela dio: *las guerras las oigamos, no las veamos*. Euskeraz onela esan genezake: Gerrak, ikusteko baño, entzuteko obeak.

Entzuteko ez-ezik, irakurtzeko ere bai. Batez ere, Patxik egin duan bezela, batere gorrotorik gabe gauzak kontatzen badira, gerrarik ezagutu ez dutenen eskarmentagarri izan ditezen.

A. Z.

CRUCERO DE LA MONTIJA

Gu, 37'ko kintakoak, Otsaillean deitu ginduzten. Ez dakit zein egunetan zan. Nik Altza'ra joan bear presentatzera, ango aiuntamentura.

Iru lagun baziran an bizikletarekin, eta nik aietako batena artu. Rafael Etxarri'rena zala uste det. Goitik beera abitu, bazterra jo ta ezurra autsi; *clavícula* aditu det nik beti.

Martxoaren 4'ean sartu zan gure kinta soldadu.. Loiola'ko kuartelean bildu zituzten. Bañan ni ospital militarrean sartu ninduten, Donosti'ko Atotxa'n.

Gero, Martxoaren 25'ean edo ola bialdu ospitaletik *alta* emanda, ta Loiola'ko kuartelean lau egun pasa.

Martxoaren 30'ean, ogei ta bat urte egin nituan egunean, Donosti'tik atera eta Burgos'a gaberdian allegatu.

An mantak eta abar eman zizkiguten, eta artu kamioitan eta Villarcayo'ra.

Villarcayo'n amabost bat egunean egon giñan, instruzioa ikasi ta egiñez. Ikasi edo... tiro tiratzen erakutsi. Nik ordurako bane-kian, bai. Eizean amabi urtetarako asi nintzan eskopetarekin-da.

Villarcayo oso erri polita da. Peria egiten zan astelenetan, eta peri ona gañera. Ganadu asko: idi, zezen, bei eta klase guztiak.

Alderdi ori ere oso polita. Euskalerriare-kin tankera puska bat badu. Euri, emen baño gutxixego, nik uste. Oinbeste ez. Toki legor-xeagoa. Bañan ez oso legorra ere. Castilla'ko gorri ori ez beintzat. Kanpo berdea.

Belar-soro eta patata-sail ederrak. Bañan emen baño jende atzeratuxeagoa nekazari-lanetan. Kaskarrak erremintak. Ala ere, baserri ederrak baziran, bai.

Erri artan bazan euskaldun bat. Kontra-tista-edo kamioak egiten ibilli ta bertan gera-tu. *Villa* batean bizi zan. Iru bei zeuzkan, ederrak beiak.

An amabost bat egun egin eta *rak!*, martxa. Crucero de la Montija'ra eramán ginduzten.

Or kamio bat dago, Burgos aldetik eta Villarcayo'tik datorrena, beetik gorakoa. Ta Crucero de la Montija ortan kruzea egiten du: ezkerretik Santander'a ta eskubitik Biz-kai'ra. Ta, Bizkai'koa artuta, andik laixter

beste kruze bat, ezkerretik Santander aldera joateko ura ere.

Frentea ortxe zegoan. Or denbora askoan egon giñan, agoztuaren ogei ta laua arte-edo.

Joan berrian, erreleboa egiten genduan. Konparazio batera, batalloi batek bi edo iru egun eta atzera, eta beste batalloia ara.

Gu giñan *Sexto Batallón de Bailén, infantería, 61 División, Columna Sagardía.*

Kamiotik berealaxe giñan, toki berdin xamarrean. Bañan eskubitara mendi aundia genduan. Eta ezkerretara, urruti xamar, Santander aldeko mendiak.

Bertan beste erri bat genduan txokoan. Izena orain etzait gogoratzen bein ere. Erri baztar bat. Eta erritik bereala mendia: arkaitza goiko gañean eta pagoa egalean.

Ara etortzen giñan gu, esan bezela, frentean bi edo iru egun pasatutakoan. Ango etxe eta ikullu zarretan sartzen giñan. Bañan gero, beste batalloia andik norabait eraman zuten eta gu frentean *fijo* egon bear.

Frentean txabola ona genduan, gerok egiña. Egurrak bota eta egur oiek jarri tellatu bezela; ta zotalak atera eta aiekin tapatu.

Gure batalloia, erdia riojanao eta erdia euskalduna zan.

Emengoxea zan bat: Inazio Orbegozo uste det zituala izen-apellidoak. Orain kontadore-fabrika nola dago? Or bazan baserri bat:

Esnabiro. Orko semea León'go mendi batean
il zuten: Peña Lasa'n.

Bestea, Frantzisko Maritxalar, nerekin
soldadu ibillia, Antxo'ko estankeroa. Bizi da
oraindik.

Mirakruz'ko gain-gañean aroztegi ttiki
bat zuana, bestea: Joxe Isasa. Motx-motx bat.
Biok Altza'koak, eta ari Altza-Txikia eta
neri Altza-Aundia esaten. Ori ere gurekin
joan zan. Bañan gero, entxufatuta-edo, txofer
bazekiala edo etzekiala, txofertzako aitzekjan
ekarri egin zuten.

Ernani ta oietatik ere baziran. Enporru
pulsolariaren aditzera bai aldezu? Orren
anaia gurekin zan: Juanito. Illa da, orain
dala dozen erdi bat urte-edo.

Bestea, Felix Aranburu, altu bat, Ernani'-
ko Urkola baserrikoa. Beste konpañi batean
zan ura. Beste bat, Dionisio Uzarraga. Joxe
Elortza ere bai, Ernani'ko baserri batekoa.
Txiki bat.

Bestea, beste konpañi batean zana, ez
dakit izena nola duan, bañan Artola apelli-
doa. Ereñozu'koa ori; andik goraxeago, kax-
ko-kaxko batean dagoan baserri batekoa.

Emengo jende asko zan, bai. Oiartzuarrak
ere bai, bañan alerik ez dakit etheen izenik.
Ez baitziran nere konpañikoak.

Irun'goa ere bai, Joxe Ramon Artola,
nere konpañi'koa, alkarrekin ibiltzen giña-
nak. Baserri txiki batekoa zala esaten zuan.
Bi bei edo ola edukitzen zituztela.

Zenbait irundarri galdetzen diot, gu Irun-en tokan da bolan beti or ibiltzen gera-ta; bañan iñork ez dit arrastorik ematen mutil arenik.

Euskaldunak riojano jende orrekin oso ondo etortzen giñan. Riojanao jende ona da. Baziran txarrak ere, e? Bañan emendik ere bai.

Asieran, bai, zailtasun puxka bat izan genduan. Nik erderaz gutxi nekian. Orain ezer asko ez ta orduan gutxiago, berriz. Bañan nola edo ala pixka bat moldatzen nintzan. Guk etxea Donosti ixkiñan genduan, ta orduantxe ere erdaldun asko etortzen ziran ta entenitzeko aña.

Bañan emengo mutil askok batere ez baitzekiten. Errezil, Azpeiti, Alegi, Segura, Zerain eta alde ortakoak, itzik ere ez. Ta riojanoak euskeraz ere ez, ba.

Ala, euskeraz itzegitea galerazi egin ziguten. Ori ere xelebrea zan, bañan euskeraz ez itzegiteko.

Ofizialak ordena eman zuten eta geiago etzuten kasorik egin. Gero, parrez ler gaizto egiten zuten. Etzekitenak, koraje puxka bat artu eta itz batzuk ikasten asi baitziran, ta kapitanari-ta *tú* esan ere bai.

Aiek bazekiten auldadea nun zegoan. Ikusten zuten, bai, mutillen borondatea, bañan abildaderik etzegoala.

Denborarekin poliki ikasi zutenak bazi-

ran. Edade ortan, deziditzen dana jartzen da. Bañan kobardeatzen dana ez.

Badakizu zeñek kargu artu zioten? Emen-go batek. Beste euskaldunai arek esan, ea etzekiten euskeraz itzegitea etzala libre.

Nigana etorri ziran:

– I, Altza-Aundi.

– Zer?

– Zerak kargu artu ziguk, euskeraz egiten degulako.

– Joño! Euskeraz itzezin eta orrek kargu artu?

– Bai, motell.

Aiek kobardeatuta zeuden. Esan nien:

– Egon pixka batean.

Arrapatu nuan ta:

– I, ator onera! Ik kargu artu omen diek oiei, euskeraz ari diralako.

– Ez al dakik ik ordena zer eman duten?

– Bai. Ta ik orain kunplitzen al dituk ordenak? Alpargata zuriak zinta gorri ta berdeakin jantzi ta dantzan ibiltzen intzanean, ez ituan bada ordenak kunplitzen. Orain kanbiatu al aiz? Iri ez baditek kalte egiten, utzi itzik pakean, gutxienaz ere erderaz ez dakitenak, eta berak moldatuko dituk.

Akabo. Etzien geiago kargurik artu, ez.

Aurreneko egunetan, jatekoa guretzat txarra zan. Noski, emen etxean oitu potaje ede-

rra jaten, ta jartzen zana, patatak baziran ere, txukun jarrita. An, berriz, perola aundiak, eta aietan patata ta aragia, oinbeste lodiko piper gorriakin. Piper gorria, kolorea emateko ttantto bat-edo, ona da. Bañan an geiegi botatzen zuten. Ta koipea ere asko.

Asi aragiarekin eta ezin; bei zarren bat igual izango zan-da.

– Motellak, au etzegok jaterik –esaten genduan.

Bañan gero, olakoa arrapatu izan bagendu, pozik jango gendukela, askotan ibilli giñan, bai.

Gañontzean, arrantxo-modu bat ematen ziguten. Konpañi bakoitzak bereai. Konpañi bakoitzak kozina bana, alegia. Ta naiko ondo. Oitu ere bai gu.

Gure arrantxeroa riojanaoa zan: Ramon Pastor. Jatorra mutilla. Arek, edozer gauza eskatu ta:

– *Toma.*

Kozina-laguntzea-edo izaten zan: patatak zuritzera ta egur pixka bat egitera-edo, egunean bi edo iru mutil joan bearra, ta arek:

– *Tomad un vaso de vino.*

Bestea, gurekin ibillia, emengo Barkaiztegi'ko sagardotegikoa: Barkaxtei. Orko semea. Agustin Irizar. Orain ere or bizi da. Ura, irugarren konpañiko kozinero egon zan.

Goizean, zazpi t'erdiak aldean, jeiki da-

nak eta gosaltzera. Kafe pixka bana eta ogi barra bana, ogi beltz bat, ematen ziguten.

Eguerdian, arrantxoa. Launaka jartzen giñan. Ematen zuten: kantinplora batean laurentzat ardoa; gero, platera batean potajea; gañetik beste zerbait baldin bazan, ura beste plateran; eta laugarrenak ogia. Danak artu, launaka-launaka jarri eta lau soziok jaten genduan beti.

Gu, al bagenduan, euskaldunak izaten giñan beti. Len esan bezela, euskaldun asko baigiñan.

Zestua aldeko eta Itziar'koak ere bai. Periodikoan letu det bat illa dala: Jose Maria Arrizabalo, Arbalitz baserrikoa.

Eta bestea Andoain'goa: Jose Santa Kruz, Etxabe'koa berez, bañan gero beste baserri batera ezkondu ta bizi zana. Ura ere illa da.

Beste bat, Igeldo'koa. Biziko da noski. Tomas Zubeldia. Ez dakit zein baserrikoa dan.

Beste konpañikoa bazan beste bat. Ikus-tean beti saludatzen dit. Bañan ez dakit orain izenik-eta nola duan. Orduan banekizkian danak; bañan nere konpañikoak etziranak, lenago aztu.

Aparia ere berdintsu ematen ziguten: garbantzuak-edo, lentejak-edo, patata-mordoska beñepein-edo, otordua pasa modukoa. Beren ordu garaian arrantxoa preparatu, gu oituta bezela ez bazan ere.

Bañan oiek pakean edo trintxeran geundela. Andik atera bitarte. Bein abitu ezkerro, eguna argitzerakoan bakoitzari berea egun guziko: sardiña-lata, atun-lata, txuskoa, ogia alegia, eta baso aundi bat ardo.

Trintxeran giñala, bi ordutik bi ordura guardia aldatzen zan, eta retena ere antxe beti, ordu berean. Erreleboa gabeko ordubietan tokatzen bazan, orduan ordubietan jeiki. Gañontzean an etzegoan ordurik. Egoarteko amarretan berdin lotara.

Ango jendearekin guk ez genduan traturik izan. Erri artan gañera, batzuk etxe utsak, besteetan beste iru edo lau baserritar bazeuden eta akabo; an etzan besterik. Guk alkarrekin egiten genduan geren bizimodua.

Batean, aiton zar bat an ari zan sega kaskar batekin belar ebakitzen; eta utziko ote zigun eta baietz.

Errezildar bat ere bazan gurekin, Jose Antonio Unanue. Illa da orain ura ere. Ta arek:

– Ea, motellak, segan egin bear diagu ta!

Zortzi-amar bat lagun bageunden ta txandan-txandan aritu giñan. Bat ari zala, besteak:

– Orain nik! Ekatzak onera!

Ordu betean belar-soroa ebaki genion eta aitona kontentu. Guri, berriz, inportik ez. Denbora pasa.

Bañan sega kaskarra zuan. Ttiki-ttikia. Eta eskutea kontrara jarria. Eskutea deitzen diogu, kertenari eltzeko bi eskute izaten ditu segak, eta aiei. Emen danean, atzera begira ibiltzen degu guk; bañan an, eta Bizkai aldean ere bai, aurrera begira. Eta nekosoagoa da.

Bean, kamio-kruzean, taberna ttiki bat zan. Ara joan da guk euskeraz. Eta ango jendeak ala esan alkarri:

– *Estos serán alemanes.*

Jakin ba alemanak-eta bazirala, ez konprenitzen guk zer esaten genduan, eta alemanak al giñan galdezka.

An gizon ttiki bat bazan, bozeoan-ta ibillia zala ta arek ba omen zuan indarra. Onela esaten zidan:

– *Venga: pega aquí fuerte. Yo lo aguanto todo.*

Nik parre egiten nion eta lagunak:

– Jo zak! Jo zak! Bota egin zak!

Eta jo eta bota egin nuan. Akabo aren arronkak.

Kapellaua, batalloi guzirako bat. Or izan giñan arte, meza jaiero izaten genduan. Gero ez.

Gau batean, festa ederra jarri genduan. Zentinelak, zer edo zer, mendiko piztiren bat-edo, nabaituko zuan alanbradan. Alanbrada ura, trintxeratik ogei bat metrora edo

ogei ta amarrera jartzen zan, kontrarioa pasa etzedin. Ta an zerbait nabaitu ta asi da zentinelatiroka ta bonbatirutzen.

Lotan geundenak ere, danak altxa ta parapetora. Ta ametralladorak eta fusillak eta bonbak-eta, *fuego!*

Ori zan tokian, pareta legorrak izaten ziran salletan, masarik gabe egindakoak, bakoitzak bere belar-soroak eta terrenoak itxi eta ganadua ibiltzeko.

Ta, tiroa tiratzean, an zer egiten zuan?

Gerok tiratzen genduan balak sua ateratzen zuan arria jotzean, ta orduan ta geiago tira guk, kontrarioak tiratzen zutelakoan, ta sua ere geiago an.

Noizbait ere, bañan ordurako tira ta tira fusil-kañoiak ezin aguantatu zala berotuak, ofizial batek:

– *¡No vienen balas! ¡No vienen balas!*
¡Alto el fuego!

Ori esatean, pixkanaka-pixkanaka geratu ziran tiroak eta ez-ta ezer ere. Ez genduan ezer ikusi guk. Azeriren bat alanbre tartean tarrapataka edo auskalo zer izango zan. Arek, tiroak entzutean, alde egingo zuan ta akabo.

Beste gau batean, guretik ara bat edo bat pasa-edo egin zan; eta bestean andik gurera besteren bat ere bai. Etxekoak beste aldean eta badakizu zer izaten dan.

Toki otz xamarrak izango dira oiek. Bañan guk otzari orduan ez genion kasorik egiten.

Gañera, garaia ere etzan eta or etzuan elurrik-eta egin, gu izan giñan denboran.

Donosti'tikan atera giñanean, trenean batzuk negarrez ere bazijoazen ta ni bertso-tan asi nintzan. Ta gero, afizioa zuten beste guztiak ere bai: Axentxio Urrestilla-ta, Santiago Oiartzabal-ta...

Asi giñan ta bertsolariak berak bere burua agertzen du, ez gera ixilik egoten eda-de ortan-da.

Gero, erri koskorren batean juntatu ezke-ro, beti bertsoan aritzen giñan.

Crucero de la Montija ortan zala uste det. Azpeitiar bat etorri zitzaidan, Iñaxio Ibar-guren, eta:

– Anaiari biali bear zizkioat eta iru edo lau bertso jarri izkidak.

Zer esan bear nion esplikatu zidan eta nik, artu papera ta batere pentsatu gabe *tarraka-tarraka* eskribitu ta berari eman:

– To!

Ta arek anaiari biali. Bañan nik beste kopia bat egin eta ura etxerako; eta etxekoak gorde:

Jose Manuel, atera nua
bertso berriyak kantatzen,

orain daukazun bizimodutik
asi biazu muatzen:
jai eta aste nobiyarekin
or zabiltza pasiatzen,
enteratua nago laster zu
omen zerala ezkontzen.

Andria artzeko asmuhan zaude,
utzi opiziyu ori:
fusilla artuta al dan lenena
onera biezue etorri;
defendi zagun gure España
ondo egiñaz askori,
eta piska bat itxoiteko
esakiyok nobiyari.

Andria artzeko garai txarra dek,
gerra biagu bukatu,
ezkontza ori piska bateko
biarko dek atrasatu;
andregaiari esan akiyok
ez deiela asarretu,
eman akiyok libertadia
nai ba'u beste bat billatu.

Gerra bukatu arte egon ai,
eta gero ondorian
neskatxak sobra ibilliko'ituk
etxian eta kalian;
baldin ontatik salbatutzen b'aiz
ezkondutzeko irian,
biyok andria artuko'iagu
esposariyo batian.

Orain urte batzuk, Azpeiti'ra boletararedo joan nintzan batean, galderak egin nituan:

- Odria baserria nun da?
- Odria? Atze ortan.
- Ta bizi al da Iñaxio Ibarguren?
- Ez. Il zan.

Ta bestea, Pedro Aranguren, azpeitiarra ura ere. Zerari galdetu nion, emen Pasaia'n izketatu ta Joxe Agirre bertsolariari:

- Axkiola jakingo dezu nun dan...
- Axkiola? Antxen pasatzen naiz ni, Axkiola'n barrena.
- Ta bizi al da Pedro Aranguren?
- Pedro? Ez. Joxe esan naiko dezu.
- Bai; bañan gerra-denboran guk Pedro deitzen genion. Neri ere Migel deitzen zidaten. Migel Frantzisko bainaiz ni ere. Ta arek ere, lenengo izena Pedro zuala esaten zuan, bañan etziola iñork ola deitzen.

Ta:

- Bai; bizi da.
- Ba, alkarrekin ola ta ola ibilliak gera. Eskumiñak eman.

Crucero de la Montija ortan lagun bat il zitzaigun, Atotxa'ko prailea bera. Frantziskanoak nola dira Donosti'ko Egia'n? Oietan sartuta zegoan bat. Ez dakit izena nola zuan.

An bazan presa bat, Villarcayo'tikan len

esan dedan Crucero de la Montija'ra bitartean. Ta, presa emen baldin bada, gero saltoa egiten du beera ta an beste putzu bat izaten da. Igeri gutxi zekian, ta an sartu zan ta ito.

Gu ez giñan an. Atera zutenean, bai; ito zala-ta, ofizialak eta danak joan giñan-da.

Burgos'ko mutil bat, igeri ondo zekian ta *zast!* sartu zan buruz beera. Bereala atera ta:

– *Sí, está ahí. Ahora lo sacaré.*

Berriz ere sartu ta arek atera zuan gora.

Praile ori soldadu sartu zanean, ni ere ospitaletik Loiola'ko kuartelera bildu nintzan, ta ez dakit urrengo egunean Erramu-eguna zan-edo, aste santua garai ortan izaten da-ta.

Dana dala, ni Atotxa'ko praileetara joan nintzan mezetara edo funtzioaren batera-edo, ta an ikusi nuan praile-jantziarekin.

– To! Au ere gurekin soldadu dagona dek ba! –nere artean.

Urrengo egunean berari galdetu:

– I prailea al aiz?

Ta:

– Bai.

– Atzo Atotxa'n ikusi indudan-ta.

Ala geratu giñan.

Bestea, apaiza, Errenteri'koa, Juan Beltz. Au kabo ibilli zan. Orduan nik uste nuan gu bezela zala. Bañan estudiante izaki ura.

Gerra bukatu ta andik urte batzutara, zer dek eta Juan Beltz apaiza dala.

Gero, or joan zan Bizkai aldeko edo Araba aldeko erriren batera. Bañan mintsu edo osasunak laguntzen etziola-ta, Errenteri'ra pamilira etorri zan berriz.

Orain urte batzuk, Aiete'ko mojakomentu batera joaten zan meza ematera. Badira onezkero iru edo lau urte ikusi ez dedala.

Denbora asko ez dala, berriz, gerran gurekin ibillitako riojano batekin topo egin nuan.

Ni eizera joana nintzan Ametzagaña alde-ra, gure etxea zaneko artara.

Riojano ori, berriz, bere errian astoaren gañetik erori ta anka autsi ta gaizki jarri. Illoba bazeukan Martutene'n ezkondua ta illobarengana etorri, ortik Frantzi'ko mediku batengana joateko.

Ta bere illobarekin igo zan orrera, Otxoki'ko ondora, Ametzagañera, eizera goizean, ta ni ere an. Illobak esan zion:

– *Mira: éste es un amigo que tenía aquí el caserío. Siempre andamos juntos cazando.*

Artean illun xamar zegoan. Bañan berak, begira-begira jarrita, esan zidan:

– *¿Tú no eres Lazkano?*

– *Yo sí.*

– *¿No me conoces?*

– *Pues no.*

– *¿No te acuerdas de Del Valle?*

Orduantxe gogoratu zitzaidan. Nik pentsatzen nuan ba riojano ura an ikusterik!

– *¡Sí, hombre!*

Ala, ez dakit iru edo lau egun pasa zituan. Bañan egunero igo zan ta egoarte guztia alkarrekin pasatzen genduan.

Kontu asko esan zizkidan, ango lagunai zeñi zer pasa zitzaioten.

SANTANDER

Ez dakit bada orain agoztuaren ogei ta laua edo ogei ta seia zan, Crucero de la Montija'tik Santander aldera atera giñanean. Bietako bat.

Ordena eman ziguten, zera danak preparamatu ta aurrera joan bear zala.

Aurrera abiatu giñan ta, aien lendabiziko trintxerara allegatzean, badakizu, len esan dedan moduan, alanbradak zituzten, guk genituan bezela.

Ordurako, ordea, beste tropa batzuk saietsetik bazijoazen, Bizkai aldetik, eta aiek andikan alde egiñak ziran.

Bañan alde egin baño len, alanbradetan minak utzi zituzten. Bonbaren batzuk alukerian jarri, alegia.

Ta alanbradetara allegatu ta pasatzeko moztutzen asi giñanean, *dunba!*

Illik ez genduan izan; bañan aleren batzuk eritu bai, bi edo iru lagun.

Etzan beste zerarik izan. Tiroteorik eta zalapartarik ez beintzat.

Andik, mendiz-mendi, ia itxasondoraño sartu giñan. Bidean ez genduan ezeren okerririk izan or.

Gu, ibilli ta ibilli, ibilli ta ibilli. Ez gene-kian nora ginjoazen ere.

Aundiak bai mendiak. Bañan ango izenik alerik ez dakit orain nik.

Geiegizko karga bai guk bizkarrean: fusilla, irureun kartutxo, bi esku-bonba, morrala, an zeozer erropa baldin bazenduan sartzeko, manta, kapotea, ta lona, allegatzen giñan tokian *tienda de campaña* egiteko.

Len esan bezela egun guziko errazioa goizetikan ematen ziguten: lata mermelada, beste lata atun, beste lata sardiña, txusko bana eta ardoa. Zalapartarik etzan tokietan, kafea. Uraxe artu eta segi aurrera.

Illuntzean esaten zuten:

– Emen geratu bear degu.

Orduan tokia preparatu, zentinelak lon-bratu, *tienda de campaña* jarri, irunaka lagun edo launaka bildu, batek manta eta kapote bat edo bi azpian bota, besteak gañera beste manta ta kapote bat edo bi, ta antxe sartu, bañan kartutxerarik soñetik bein ere kendu gabe.

Ala ere bai aguro lo artu. Bañan andik bi ordura altxa igual egin bear, puestora joateko. Beti bat edo batek zentinelak egin bear an, bada ezpada ere.

Kontrariorik etzan iñun ere azaldu, eta ez genduan guk or tirorik egin.

Nunbait ere, Reinosa'tik eta itxas aldetik sartu zitzaizkienean, erretiratu egin ziran aiek toki guzietatik.

Orrela, egun batean puxka bat, bestean beste puxka bat, gu beti aurrera. Ibillera luzeak egin genituan, bañan ango jendearekin ez genduan batere tratorik izan.

Santander'ko alde orrek, gu mendi samarrean ibilli giñan, bañan toki onak baditu. Basarri aundiak eta ganadu-leku onak. Beiak ere, sail ederrak ikusi genituan.

Eta dana berde-berde, emen bezelaxe. Eta gaztañadiak, pagadiak eta arboladi bikañak nunai. Mendietako arria ere, emengo geiena bezela, kare-aitza.

Erriak, allegatu giñanak eta orain izenak gogoratzen zaizkidanak, Arredondo ta La Cavada. Besterik ez.

Urte asko baitira. Santander'tik uste det inguru samarrean dirala oiek. Erri politik dira. Mendi samarrekoak, bañan ganaduakin eta zelai ederrakin.

An, nunbait ere tropak deskansatu edo zeratu bitartean, bi edo iru egun egin genituan.

Gero, Santander'a joan bear genduala-ta,
andikan berriz oñez atera giñan.

Bañan ia Santander'ko ondoraño allegatu
giñanean, *alto!*

Etorri ziran kamioiak eta León'a eraman
ginduzten.

PEÑA LASA

León'en egun bat eta gau bat pasa genituan. Millaka giñan gu an soldaduak, danak Asturias'era eramateko. Auskalo zenbat tren etorri ziran. An ibilli giñan ara ta onera. Tabernaren bat billatu ezkerro, antxe sartu. Guk ez genduan ezer ikusi an.

Noria deitzen zaiona bai; an ezagutu nuan nik. Katxarro bat emen, pertika luze bat, eta batean astoa zan eta bestean idia lotua. Ta aiek *tuk-tuk-tuk* beren pausoan bueltaka dabiltzala, *po-po-pot po-po-pot* ura aidoso beetik gora. Eta ur ori andikan eraman, baratzak bustitzeko. Ari begira gustora egon giñan.

Andik, kamioitan artu ta San Pedro de Luna'ra eraman ginduzten. Erri ori, León'dik Asturias alderako kamioan izango da. Bañan beste kamio batzuk ere egongo dira, gero bueltan, mendi danak pasata, beste kamio batetik etorri giñan-da.

San Pedro de Luna ortan asi giñan aurrena gerran. An, kamioa pasatzen zuana ere iltzen zutela zeukaten aiek. Orregatik, illunpetan pasa giñan gu. Gero, lejionarioak aurretik eta gu atzetik, zabaldua atera giñan ta artu genduan mendi ura. Egun batean zeratu zan dana. Mendi koxkor bat zan, mendi txiki bat, San Pedro de Luna'ko muga ortan.

Andikan mendiz-mendi abiatu giñan, eta mendi ikaragarriak eta toki pobreak. Erri kaxkar batzuk, tellatuak belarrakin egindako etxeak.

Erri koxkor bat mendi-zoko-zoko batean billatu genduan. Metro bateko paretak buztinakin-da egiñak, gero gañetik egurra bota, esan bezela lastoakin tellatua, ta an bizitzen ziran. Ez dakit nik zenbat famili izango ziran: amar, amabost edo ola.

Erri txiki ortan, gure konpañian jatenik etzegoala-ta, tenientea baserri batera joan eta zekor koskor bat zegoan, larrean ibiltzen dan gorri arraza ori.

Etorri eta ura artzeko esan zidan. Artu ta beste laguna, Donostia'n bizi da, arabarra berez, Jose Abezia, ordurako mataderan lanean ari zana. Arek il zuan, artarako labana ere bazuan-ta. Odolak kendu ta garbitu ere bai. Zenbat kilo zan gutxi gora-beera esan zuan, ta zenbat diru balio zuan ere bai. Orduan tenienteak neri:

– *Vete y págale a la señora.*

Dirua eman zidan eta joan nintzan. Emakume plaka-plaka bat zan, berrogei urtetik gorakoa. Orduan guretzako zarra iruditzen zan, bañan emakume gordiña. Aiek, ordea, gorrien diruarekin oituak eta onela esan zidan:

– *Este dinero no vale.*

– *Señora, este dinero es el que ahora vale.*

– *No, no vale.*

– *Sí, vale. En este pueblo, usted es la única que tiene dinero.*

– *Que sea lo que Dios quiera. Lo guardaré como recuerdo.*

– *Sí; guárdelo.*

Zer esango nion, ba? Gajoa an geratu zan, diruak artuta ta txekorra falta.

Etzan beti modua izaten. Frentea bertan baldin bada, su egiterik ez baitago. Bañan su egitea egon ezkeru, tiroteorik ez danean, mendira allegatuta ere, beti zerbait beroa jartzen zuten: edo babarruna, edo garbantzua, edo patata. Lau bat mando izaten zituzten, perolak eta arrantxoa eramateko. Ola jan genduan, gixatuta gañera, txekor ura.

Erri artatik, jo ta jo ta jo, aurrera abitu giñan. Beren izena izango dute toki aiek. Nik orain ez jakin, ordea.

Bañan Peña Lasa gogoan daukat. Milla ta zortzireun metroko mendia uste det dala.

Errezeloa ala daukat. Mapetan egongo da ori. An gerra gogorra egin genduan.

Orrera igo giñan, bañan gu batalloi bakarra ta indar gutxi. Bestea ere abixatuta zegoan laguntzera etortzeko eta bazetorren pixkanaka; bañan aiek ere denbora bear.

Ta zer gertatu da? Mendi-kate bat zan. Bañan kate orrek egiten zuan, andik onera zetorren bezela, emen beste mendi bat, saietsean, dana arkaitza. Ta gorriak an egoki. Bañan lañoa zegoan aundia ta guk ez ikusten.

Gu aurrera ta aurrera, ta orduan aiek tiro ta tiro arkaitzetatik. Gu aurreraegi sartu ta aiek saietsetik arrapatu. Aiek preparatuta egongo ziran. Aiek ezagutzen zuten mendi-ura, bai. Bañan guk ez, eta mutil asko il ziguten.

Amabost-edo euskaldunak baziran illak an; eta euskaldunak etziranak ere bai mor-doa. Sarjentoak, berriz, ia danak. An il zuten, len esa dedana, Esnabiro'koa, Inazio Orbegozo. Kontadore-fabrika dagoan ortan zan baserria.

Octavo de San Marcial uste det zala beste batalloia. Juxtu-juxtu allegatu aiek. Orduan gu atzera bota ginduzten, eta aiek ekin.

Bañan mendi altua beetik gora, mendia-
ren kaxkoa dana arkaitza, besteak an gera-
tuak eta an etzegoan sartzerik iñondik ere.
Batzutan lañoa kentzen zuan, ta *taka!* aiek

tiroa. Edo, bestela, *ta-ta-ta-ta* ametralladorakin.

Urrengo egunean, komandanteak teniente koronelari abixoa: *que no se puede tomar el monte.*

Teniente koronelak beetik gora: nai ta nai ez, artzeko mendi ura.

Ta komandanteak: nai baldin bazuan, bera joango zala ta bera ilko zutela; bañan soldadurik etzuala bidaliko.

Izan ere, burua atera ezkerro, segituan jotzen zuten. Bertan baigeunden. Arriakin allegatzeko moduan batetik bestera.

Bestea bai al dakizu zein il zuten mendi artan? Mendizabal nola aizkoran ta arri jasotzen ari da, Aduna'koa? Orren osaba, Frantzisko Mendizabal. Neronen ondoan zan, gañera.

Igo zan teniente koronela ta komandanteak esan zion:

– *Ahí está el monte.*

Ta teniente koronela arrimatu zan denboran, *ta-ta-ta-ta* suak eta balak. Etzuten arrapatu. Aidoso atzeratu zan.

Orduan moroak ekarri zituzten, *tabor* bat. Aurrera bota ere bai mendi ura artzeko. Abiatu ziran *ttau-ttau-ttau* ojuka, Nik ez dakit zer esango zuten. Bañan izugarrizko bulla atera aiek.

Bañan moroak ere etzuten artu. Aiek ez

dira gu baño geiago. Moroa kobardea da. Pilla galantak an geratu ziran ilda.

Aiek sinistuta etorri ziran gizajoak, emen il ta beren errian piztuko zirala.

Lur emateko, biderako arrantxoak jarri zioten bakoitzari. Beren lagunak zulo aundi bat egin ta danak batera sartu zituzten.

Gero, bizi ziranak bueltan jarri eta burua ta besoak gora altxatzen zituzten, ta gero *rak!* lurreraño makurtzen ziran, *tza-tza-tza-tza* beren errezoa egiten zutela. Ta berriz gora ta berriz beera, ez dakit zenbat bider. Ori egin ondoren tapatu zituzten.

Mendi ura artzerik etzegoala-ta, an geratu giñan. Moroak ere an zeuden.

Gau batean, Arrua'ko zala uste det, edo ez dakit Zestua'koa zan, mutil bat zentinela zegoan. Gure aurrean bandera genduan jarria, arri koskorra kin gogortuta, abiazioa bonbardeatzera etortzen bazan ez deskuidatzeagatik.

Bañan nunbait ere aize aundia zebillen ta zer egin du? Bandera artu ta goitik beera eraman. Ta mutil ura zentinela bertan egoki ta or iruditu zaio bandera gorriak daramatela.

Asi da bonba tiratzen. Korrika atera giñan ta asi da tirotea. Moro guziak ere bai *txau-txo-txo txau-txo-txo...*

Komandanteak, andaluza bera, esaten zidan:

– *Lazcano, vengan bombas, vengan bombas.*

Ta kaja bonba an ta nik ere gogotik ekin diot esku-bonba tiratzen. Bañan andik onera tirorik etzala ta geratu giñan. Ta zer izaki ta aizeak bandera bota. Nunbait ere mutil ura bildurrak egoki. Batzuek gutxiago bear dute, besteak baño, ortarako ere.

An giñala, bajak osatu ta konpañia indartzeko, jende berria ekarri ziguten. Oietako bat, alfereza.

Egun batean, an bertan, arkaitz tartean, basauntza azaldu zan, Jendearekin izutu ta izkutatua, edo nik ez dakit zer izango zan ura, ta orduan atera. Ta iru edo lau lagunek tira genion ta il.

Tenienteak esan zuan, larrutu ta konpañiarentzat arrantxoa jartzeko. Nere lagun Abezia'k larrua kendu ta garbitu zuan.

Alferez berriak, labanarekin puska kendu ta gordiñik jan zuan. Kabo Millán kozinakoa zan ta esan zion:

– *Espera un poco. Ya le asaré un cacho.*

Ta alferezak onela erantzun zion:

– *Si yo tengo hambre y le cojo a un rojo, me lo comeré así.*

Bañan andik ordu gutxi baño len, bala batek jo zuan begiaren ondoan. Akabo gure alfereza. An gelditu zan betiko.

Naiko denbora pasa genduan an. Bearbada ogei egun bai. Ia illabetea.

Gero, mendi ura nola edo ala artu bear zala-ta, gu, geunden tokitik abitu giñan. Gure eskubitik reketeak jarri zituzten. Eta ezkerretik beste batalloi bat; ez dakit izena nola zuan.

Etorri zan abiazioa eta gu ere bildurrak, bertan baigiñan. Asma zazu bonba nora eroriko dan. Bañan ondo ikasiak egongo ziran eta zuzen botatzen zituzten. Ango burrunda! Dana arkaitza baitzan, arkaitz tartean sartzen zan bonba bakoitzak arri-zipristin ederrak ateratzen zituan. Puska ederrak bai. Mendigain ura ala txikitu zuten.

Ango batzuk itzuli asi ziran ta saietsetik artu zituzten. Besteak, geienak an garbitu ziran.

Gero, andikan beeko barrenera jetxi giñan, Busdongo errira. Ta andik atzerago erretiratu, Villamanín errira. Ez dakit Asturias'en dauden edo León'en dauden erri oiek. León izango da. Trena pasatzen da.

Guk eguraldi-giro onak izan genituan mendian. Bañan beera jetxi ta segituan elurra egin zuan goien.

Villamanín ortan egun batzutan egon giñan. Ordurako, artu samarra zan Asturias; ango gerra bukatuxea.

An bazeuden, afusillatu-edo ta anakak-eta bistan zituztenak. Ta zulo aundiak egin ta ondo tapatzeko aiek, eta an jardun giñan.

An geundela, prisionero asko ekarri zu-

ten. Itxitura batean sartzen zituzten, ta gero andikan artu ta berriz eramán, batzuk kamioitan eta beste batzuk bagoitan.

Villamanín ori erri polita da. Artalde eder bat bazegoan an, irureun-lareun bat ardi zuana.

Gure lagun bat Abaltzisketa'koa zan, Antonio Etxeberria. Orain uste det Andoain'-en edo or bizi dala. Arek zer egin du? Bildots bat ostu. Esan zidan:

– Au biok jan biagu.

Ta zer da ta gaueko amabietan ordena: zera danak preparatu ta iru t'erdietan edo lauretan atera bear genduala.

Bai? Guk lonak eta katxarroak berealaxe bildu genituan; ta sua egin, erre ta goizeko iruretan jan genduan bildots ura.

Andikan León'go kapital ingurura ekarri ginduzten.

LERIN

León'en gau bat pasa genduan, ta artu trenean ta Logroño'ra. Gure batalloia, *Sexto de Bailén*, Loiola'n osatu bazan ere, Logroño'koa baitzan.

Ango kuartelean tokirik etzan izango. Bañan tokirik egonda ere, gu nola eramango ginduzten, ba, ara? Zorriz beteak baigeunden. Frontoiean sartu ginduzten. Frontoi itxia da Logroño'n.

Gurekin bat bazan Andoain'goa, an erituta-edo egona. Arek ezagutzen zuan Logroño, ta guk:

– Ikusi bear diagu nolakoa dan.

Sarjentoa ari zan zentinelak lonbratzen, atean. Esan zuan:

– *Que no salga nadie.*

Bañan gu, lau edo bost euskaldun, bazterretik joan ta aurrera. An ibilli giñan Logroño guzia pasatzen. Batean:

– Emen kafea artuko diagu.

Ta bestean trago ardoa ta urrengoan beste tragoa. Ardo pixkaren bat ere atera genduan.

Gero, joan gera frontoira ta danak lotan. Danak lotan ta danak gorputzari atz egiñez. Esan genduan:

– I: orrera joan bear al diagu guk?

Joan egin bear. Bañan gu ere berdin giñan: danak zorriz beteak.

An lotan zegoan batek, esnatu ta artzen du fusilla; fusillak baketa izaten du garbitzeko, ta baketa ateratzen du. Sartu du ura bizkarretik eta *dra-dra-dra-dra...*

Zorria geldirik egoten da egunez. Bañan lotan jarri ta gorputza berotzen danean, mugitzen da ta orduan ematen du azkurea.

Erri batera biltzen giñanean, erropak aldatu ta erantzitakoak urean egosi egiten genituan. Bañan alperrik da. Zorria segituan etortzen da garbira. Bera zikiñean sortua da, bañan garbia gustatzen zaio.

Erropa bat jantzi ta, naiz euria ta naiz elurra egin, igual iru edo lau illabetean soñean eramaten genduan erantzi gabe, erri batera joan arte.

An ez da botik ere eranzten, ta galtzerdiak oñetan usteldu.

Lo egiteko ere, kartutxerak kendu gabe. Bat onera tira, bestea ara tira ta lurrean etzan. Ta batzutan, lo jarri ta:

- *!Hala, todos arriba!*

Gero automobillak izaten dira ortarako, automobil aundiak; konparazio, oraingo *trailer* edo zera oiek bezelakoak.

Ara joan ta erropa guztiak erantzi, ta erropa oiek sartzen zituzten makina batean ixkiña batetik, eta desinfektatu ta legorrak atera bestetik.

Bitartean, amar bat lagun sartzen giñan, ta an grifo idikiak eta dutxatu ta garbitu. Ez bear bezela, bañan puxka bat. Sarjentoak esaten baitzuan:

- *!Venga, fuera, otro!*

Bai, ba. An bi edo iru milla gizon pasa bear ta... Alde ederra, edozein moduz.

Gero, otordu izugarri ederra eman ziguten, banketea alegia, gu *guerrero* aundiak bagiña bezela. Plato bat edo bi geiago, Ta berdura ta postre ta abar. Arrantxoa, bañan mejora puxka batekin.

Logroño'n egun bat pasa genduan. Eta andikan Naparro'ra ekarri ginduzten, Lerin'era, deskantsatzera.

Lerin, erri dotorea da. Orko ardoak, eta matsa, eta gariak...

Ara allegatu ta iru eguneko permisoa eman ziguten, etxera etortzeko.

Bañan paseak illunabarrean artu genituan ta urrengo goizean autobus bakarra pasatzen pasatzen zan andik. Ta autobus orrek zenbat

lagun kabituko zituan? Berrogei, berrogei ta amar, irurogei? Berdin da larogei sartzen baziran ere, bosteun baño geiago giñan permisoa genduanak eta.

Estella'n trena goizeko zortzietan zegoan, ta nik esan nien lagunai:

– Begira: zuek nai dezutena egin. Estella'ra amabost edo ogei kilometro egongo dituk. Ni segituan aterako nauk eta goizerako Estella'n. Eta an trena artu ta seguru joango nauk. Emen autobusaren zai geratzen danak, berak ikusiko dik.

Lau lagun preparatu giñan: bi alegitar ta bestea Frantzisko Ayestaran, Antigua'tik aurreraxeago dagoan baserri batekoa. Etxea-ren izena etzait orain gogoratzen. Oraindik biziko da bera, mutil zarra.

Ala, abitu giñan oñez. Bagenituan ordu-rako amar bat kilometro paseak, gabeko amabiak aldea zan, eta erri koskor bat. Allo edo ez dakit zer erri zan ura. Erri ona. Naparroa'ko Erribera ortan diran bezela.

Sartu gera taberna batean ta jende batzuk an. Zer bear genduan ta jateko zerbait ateratzeko, baldin bazegoan. Ezer etzeukatela. Ardoa ekartzeko, bada.

Ardoa serbitu ziguten; ta or egiten dute matsa jaso ta nolabait ere sekatu. Mats-pasa, bañan mordo osoan. Ori ere ekarri zuten, ta jateko andik.

Ala, asi giñan izketan, ta garai artan nora

ginjoazen galdetu. Estella'rako ola ta ola
giñala, guk.

Bi gizon ere bazeuden, bikañak, eta eus-
kaldunak izaki aiek, iriñetara joanak. Esan
ziguten:

- Nora joan bear dezute?

- Donosti'ra.

- Zuei inportik ez badizute, gu goizean,
bostak aldean, irtengo gera emendik iriñare-
kin. Bañan kamioiaren gañean joan bearko
dezute.

- Bai pozik.

- Ba, nai badezute, ara or irin-pabrika.
Orrera joan ta or egon. Gu goizean etorriko
gera. Bostetarako kargatuko dute ta eramango
zaituegu.

Irin-pabrikara joan giñan, ta an orduan
ere irin egiten ari zanak, festak izanak ziralta,
festa-lege ederra egiña zutela, ta ollaskoa ta
ez dakit zer jarri zizkiotela, bañan etzeukala
jateko gogorik. Ta guri eman, ta guk jan.
Baita zatotik ardoa edan ere.

Kamioia kargatzeko etorri ziran bi edo
iru lagun, ta gu ere kamioia kargatzera.
Bañan aiek, guk ez lanik egiteko.

Zer egin dute? Zakuak exkiñan jarri al-
tuago ta erdian txoko bat guretzako. Esan
genduan:

- Emen leku ederra zegok.

Besteak ere etorri dira ta abitu gera.

Bagatoz, bagatoz ta, Etxarri-Aranatz'tik barrera, Ataun'a allegatu gera. Ataun'go sarre-ran geratu ziran. Eguna argitzea edo ola zan. Goiza beintzat. Esan ziguten:

– Mutillak, jetxi beera.

Aiek bazekiten ango berri, bai; guk ez. Jetxi giñan ta taberna batean sartu, komedore txiki batean. Apaiz bat ari zan an gosaria artzen. Meza emanda edo norabait joan be-rra izango zan ura.

Olako katillu aundi zuri oietako bana atera ziguten, kafesnea zopakina. Arraioa! Guk alakorik ez genduan arrapatu aspaldian! Jan genduan ta aiek:

– Abitu egin bear degu.

– Ta au zenbat da?

– Zuek ixilik eta gora kamioira!

Igo giñan ta Alegi'n geratu bear zutela bik. Alegi'n aiek biak jetxi ta:

– Besteak zein tokitan nai dezute?

– Guri, Donosti'ra eramanez ezkerre, ez digu inportik. Edozein tokitan.

– Gu Parte Zarrera goaz.

San Juan kalean ustu bear zutela kamioia.

– Antxe orduan.

Ala, Estella'n zortzietan trenea artu bear, ta zoztzi t'erdiatarako or giñan gu Donostia'n.

Ni, zuzenean etxera, Otxoki'ra. Etzekiten ezer ere. Guk, allegatzen giñan tokian, karta egiten genduan: Olako tokitan gera. Bañan permisoa illunabarrean etorria zan ta guk ezin, ba, abixatu.

Etxera etorri nintzan ta ez pentsatzen iñork ere. Atean oju egin det:

- Eup!

Ama sukaldean ari zan ta bai aguro atera. Lepotik eldu ta negarrez asi zan gajoa.

Aita illa genduan, gerra asi baño sei illa-bete lenago.

Arreba bigarrena, Iñaxi, orain il berria, Errera'n bizi zana, ura bestea etxean zegoana, ta ura ere korrika atera. Zarrena ere bai, Agapita. Ura ere illa. Irugarrena, berriz, Joxepa, Donosti'n zegoan neskame. Ura ere illa. Iru arreba illak ditut. Laugarrena bizi, Karmen, ni baño gazteagoa.

Anai zarrena, Migel, ura lanean. Bestea, berriz, Iñaxio, Guadalupe'n zegoan.

Artilleriko boluntarioak eskatu ta boluntario atera ziran Guadalupe'rako euskaldunmordo bat: Felix Arrieta San Pedro'koa, Orbegozo pelotaria, Altuna Arkiri'koa, Etxeburua kontratista... Ta gure anaia, artillero baitzan, 34'ko kintoa, bera ere bai.

Gerokoa ez da jakiten. Bañan, an ziran bitartean, andikan etxera etortzeko-ta obeto zeudela. Batzuk ortikan artu ta eraman zituzten, erdiak-edo, bañan beste erdiak ber-

tan. Esandako oiek danak, Guadalupe'n pasa zuten gerra guztia.

Guadalupe orduan inportante zegoan Frantzi'rako ta itxasorako, ta gerra ere andik bertatik pasa baitzan.

Guadalupe'ko azpian, itxasoaren ondo-ondoan, Artzu errota dago, Ondarrabi'ko partean.

Ta ango alaba bat, Juanita, gero andrea izango zuana, gure anai orrek adiskide egiña.

Ni Lerin'dik permisoarekin izan nintzanean, Guadalupe'ra joan nintzan anaia bixitatzera, ta orduan ezagutu aren andregai.

Alkarri illea artzen aritu giñan ta anaiak esan:

– Jarri izkak bertso batzuk, ola ta ola.

Ta nik, atzera Lerin'era joan nintzanean, bai jarri ta bialdu ere.

Etzan batere zapuztu, ez, Juanita ori. Ajola dio orain ere. Exkondu ondoren, berak kantatzen zituan askotan, ta gaur ere kantatuko ditu.

Anaiak, berriz, Iñaxiok, afizio aundiazuan bertsotarako. Ikasten zituan orrek aguro.

Anai zarrenak ere, memori ikaragarria izan du. Bañan bertsotarako ez. Bestela bai. Lantokian telefonoetan enkargatu egoten zan ta arrituta uzten zituan injenieroak eta danak.

Bertsoak auetxek dira:

Aiskide batek enkargatu nau
bertso berriyak jartzeko,
neskatxa baten pasadizua
zer dan esplikatutzeko;
gaur emakume asko dirade
beren konduta galtzeko,
ez dago oraiñ epoka txarra
eskarmentuan sartzeko.

Neskatxa au da Guadalupe'ko
aldamenian jayua,
kuartelian soldau serbitzen
dauka bere nobiyua;
arrigarriya izan biar du
oiek duten jeniya,
bañan nobiyak eztu kunplitu
mutillen arguriya.

Apellidua ez dakit baña
Juanita dauka izena,
ni enteratu naizenez ori
ez da sujeto zuzena;
desobeditzen asi omen da
artu baño len gizona,
apenas orrek obeditzen dun
zarraguaren esana.

Lengo batian nobiyuari
eskatu'io permisua,
buruko illia jarri lezaken
apaindua edo grizua;

orrelakorik ez egiteko
eman ziyon abisua,
hombre chapero traza arturik
orain or dabil gaixua.

Juanita, burua arro daukazu
eta gorputza bajua,
etsaiak asko tentatzen dute
zure memori flojua;
txorakeriyak sinistatuta
artu nai dezu lujua,
pobriarentzat gauz ori ez da
lege-bide onekua.

Orra sei bertso orain nik jarri
lagun on batek esanda,
esplikatuaz izaera bat,
premiya're bazegon-da;
Juanitagatik nobiyo jauna
asarre samar egon da,
gaizki esana barka idazu,
obligatua negon-da.

Etxean egon nintzan denboran, badakizu,
erropa zarrak, batzuk kendu ta erre, ta bes-
teak garbitu ta konpondu. Baita berriak eka-
rri ta preparatu.

Ta etxeko jana gustora jan. Bai pixka bat
txarxeagoa izanda ere. Sagardoa ere bagen-
duan ta kupira gabe edan. Beti izaten zan
sagardo ona Otxoki'n.

Nik zer egin nuan? Iru eguneko permisoa

genduan ta zortzi egun pasa. Gero, berriz Lerin'era.

Lerin'en oso ondo izan giñan. Ikaragarri jende ona arrapatu genduan. Dana eman aiek.

Illunabarrean, batek gu kuadrillan giñanak artu ta:

– *Hala, vamos a mi bodega.*

Ara joan ta baso aundi bat ardo. Edo bi, edo iru, edo geiago.

Andik atera ta beste batek:

– *Eh, muchachos: a echar un trago.*

Ta aren bodegara. Bodega ederrak dira an. Eta erori arte segi edaten. Erori arte, bai. Bestela, utzi ere ez aiek. Lotara lau oñean joaten giñan. Edo paretari atzaparka elduta.

Bañan oso ardo ona. Kalterik batere egiten ez duana. Lo egin, urrengo goizean esnatu ta ez egarririk, ez buruko miñik eta ez ezer ere. Sekulan edan ez bagenduan bezela.

Joan berrian, eskola genduan lotarako. Bañan gero etxeetan egiten genduan. Iru giñan gu etxe batean. Bat, Frantzisko Ayestaran ori.

Gero, eiztariak zirala-edo, Mata apellidoa zutenak bost anai zeuden an. Lerin erri aundia ez da, bañan bost anai oiek bost barberi zituzten. Ta orduan dana *veda* zegoan, bañan egin genduan tratua ta utziko zidatela eskopeta.

Joan nintzan eizera, ango berri ez nekian ta bost eper bota nituan. Bañan jakin du komandanteak.

Komandanteak asko maite ninduan, ondo tiratzen nualako. Nik, fusillarekin ere, aurreneko egunetik jo ta txikitzen nuan zera: Villarcayo'n, prueba egiteko, botilla jartzen zuten ta ura. Ordurako banituan kopa bat edo bi tiroan irabazi ta etxera ekarriak. Ta komandanteak:

– *Oye, Lazcano: ven aquí.*

– *Mande Vd., mi comandante.*

Gerra-denboran ez da izaten, gañera, orain bezelako etiketarik.

– *Mande Vd. –esango nion.*

– *Me he enterado de que has traído per-dices.*

– *Sí, señor, sí. Y más adelante, en el coto de Baigorri, debe de haber muchas, aunque no lo sé seguro.*

Ba, berak munizioa jarriko zidala, lagun bat ere bai, ta ea ekarriko nituan aparitarako aientzako eperrak.

– Nik baietz, gustora.

Eskopetak eskatu zizkieten Mata anai oiei, munizioak ere ekarri zizkiguten ta joan gera. Zarautarra nuan laguna. Joxe Solaberrria zuan izena.

Ekarri genduan ogei ta lau eper, beste bi edo iru konejo, ta beste bi erbi ere bai.

Komandantea pozik eta egin zuten beren banketea.

Guk ez genduan jan andik. Bañan aundiak egin zuten eta txikiak ere egin nai. Sarjentoak, komandantearen baimena bear zanda, eskatu zion ea gu biak ibiltzeko libertaderik emango zuan. Ta komandanteak baietz, baietz...

Sarjentoak erriari esan dio. Ta bodegako batzuek, aiek jarriko zutela ardoa, ta ekarritakoa maniatu ere bai.

Joan giñan ta berriz ere beste ogei ta lau eper bota genituan, ta beste konejo bat edo bi, ta erbi bat.

Ala, gu ere sarjentoarekin batera aparitara. Jarri zituzten eperrak, *a la vinagreta* esaten zuten aiek; bañan eperrak oso-osorik, bakoitzarentzat bana. Eta konejuak eta erbia, kazuela aundi batean ardoakin gisatuta. Nola olio ta gero ura botatzen zaio? Uraren tokian, ardoa. Izugarri fuertea geratzen da jate-na ori. Ta ardoa, berriz, garrafoitan, nai genduan aña.

Eperretara joaten giñanean, nekazariak lanean an aritzen ziran. Soroak, ikaragarriak. Traktoreakin ibilliko dira orain, bañan orduan bost edo sei mulakin, bueltakabuektaka. Ta gu ikusi ta esaten ziguten:

– *Eh, chicos: vamos a la alforja.*

Ara joan ta piperra oso goxoa izaten da, piperra gordiña, morroa, bañan punta luxea, ta ura ta urdai azpikoa jan. Ta:

– *Venga, echad un trago.*

Ta bost bat litroko zatoa, zagi txiki bat bezelakoa. Ura atera ta edan. Gero esaten ziguten:

– *A ver si matáis todos los conejos, que nos comen el trigo.*

Jura de la bandera ere Lerin'en egin genduan, ordurako makiña bat tiro tira ta gero.

Azkenerako, festa egin bear zala esan zuten. Konpañia konpañiaren kontra. Batzuek arri jasotzen, besteak aizkoran, besteak sokatiran, korrika ere bai eun metroan.

Ala, pizkorrentxoena gogoratu ta berezi ziran. Ni, arri jasotzen ta sokatiran nintzan. Badakizu: gaztetako indar kozkor ori. Arria bastante ondo jasotzen nuan. An ibiltzen giñan entrenatzen-edo, arri batekin. Mugarria zala esaten zuten.

Aizkorak eta danak ekarriak ziran. Bañan oraintxe festa allegatzeko bi edo iru egun falta zirala, gau batean, goizeko iruretan, korneta:

– *Tiiii... Tiiii...*

Ta:

– *¡Venga, muchachos, arriba!*

Ta artu traste guziak ta kamioietara...

TERUEL

Trena baldin bazan, ganadutarako bagoi oiek ekartzen zizkiguten. Bañan Lerin'en, kamioiak.

Ara goazela, ara goazela norabait ere, ta alakoren batean Sigüenza.

Ez giñan geratu. Andik amar bat kilometrorra, erri txiki bat, Riosalido, ta an lastopilletan sartu ginduzten.

Guadalajara'tik Madrid aldera uste det atakea jotzeko asmoak zituztela. Ta Sigüenza alde ortara ikaragarria eramán zuten soldadua.

Riosalido ori, erri koxkor bat zan. Zera zegoan asko: erlea. Erle-semea ikusi genduan sail aundi bat. Paretaz itxia-edo, ta dana kaja, kaja, kaja... Bañan asko.

Gañontzean, etxe xar batzuk. Lur ibiltzen dana, gutxi. Eta mendi arlotea. Dana txilla-

rra. Txillarra omen da onena ezta egiteko, bai.

An geundela, tenientea zan medikua, ta eiztaria. Eiztaria ez; gustatzen zitzaiona. Alkateak eskopeta ta iru kartutxo eman zizkion, ta abitu da.

Erbia zegoan an asko. Atera zaizkio orri, iru tiro tira ta alerik bota ez.

Komandanteak esan zidan:

– *Me han dicho que hay aquí mucha liebre.*

– *Sí, señor, sí.*

– *Bueno, el médico ha ido por ahí y no había más que tres cartuchos. Los ha tirado todos y no ha matado ninguna. Vamos a pedir al depósito escopetas y cartuchos; y, cuando nos los manden, tienes que matar algunas.*

– *Sí, señor, sí.*

Gustora ni. Andikan bigarren egunera edo ola, esan zidan:

– *Ya van llegando.*

– *Muy bien, muy bien.*

Ni pozez erbiai tiratzeko. Bañan gabean, oiera joan da bereala:

– *¡Arriba! ¡Arriba!*

Esnatu gera ta ango kamioi-otsa: *brrruuu... brrruuu...* Guk alkarri:

– *Badiagu orain ere!*

Sartu giñan kamioietara ta Sigüenza'ra. An erruz zegoan soldadua. Ta trena kargatu ta trena martxa; trena kargatu ta trena martxa...

Nora ginjoazen ta batzuek ara esaten zuten; besteak onera. Bañan nunbaitetik aterazuten Teruel'a goazela.

- Teruel'a?

- Bai. Teruel'en gorriak erdian artu ta zerkatuta omen zeudek eta ura garbitzera.

Nik esan nien:

- Ori ez esan neri.

- Ik zer dakik, bada?

- Ori ez dek ola. Zerkatzeko indarra baldin bazegoan, garbitzeko ere indarra badekan. Indar asko baldin bazan aiek bueltan artzeko, besteren bearrik ez dute. Or aldrebek dek. Or gorriak aurrera etorri dituk. Olakoren bat dek.

- Ala esan ditek.

- Bai, bañan ni ez nauk konforme.

Cella izena duan erri batera eraman ginduzten. Bañan Cella baño lenago, trenbidea zegoan ametralladorakin arrapatzen zutela. Ala, orrera eldu giñanean, geratu trena ta illundu arte. Zenbat tren, ordea? Erruz.

Illundu zuanean sartu giñan Cella erri ortara. Erri aundi xamarra izango da ori. Bañan ez giñan ibilli batere. Etzegoan iñora

mugitzerik, tropa guztiak ara ta onera ta kontrarioak ere bertan baitziran.

Bastante mendia du erri orrek, bañan mendi arlote samarrak. Arbol gutxikoak. Ganaduak-edo ibilliko dira bañan.

An ez dakit zenbat denbora egin genduan; egun-pare bat edo ola, tropak etorri bitarte. Aiek ere, Cella baño lenago geratu bear. Egunez ezin pasa, tira egiten baitzuten; eta gabez.

Gero, ortikan Caudé izeneko beste erri batera eramán ginduzten. Erri ori, dana erri-bera da. Dana berdin-berdiña. Ta trenbidea bean, errioa balitz bezela.

Caudé gure mende zegoan; ta Concud, urrengo erria, gorrien mende.

Trenbidetik joan ta trintxeretan sartu giñan. Bañan egun batean egindako trintxerak. Metro batekoak, geienaz ere.

Ta makur-makur eginda, egun guzian antxe egon bear. Bere bearrak bertan egiñak ere baziran an. Ezin andik mugitu.

Batek burua atera ezkerro, *tak!* tiroa bai aguro. Guk ere berdin: tartetik iñor ikusten bazan, tiratzen genduan.

Urrengo goizean, asi dira kañoiak gure aldetik. Irureun bat ba omen ziran, italia-noak. Aurreneko pasada aiek eman zuten. Eta abiazioa gañetik, berrogei bat geienean, batzuk joan ta besteak etorri. Antxe aritu ziran egun guztian.

Gu urrengo goizean atera giñan, amasei tanke aurretik genituala. Bañan ia trintxereta allegatu giñan denboran, erretira. Ezin aurrerago joan, gogor egiten zuten-da.

Ildakoak an geratu ziran. Erituak ere, erdiak bai. Al ziranak erretiratu genituan; bañan erituen billa joaten zana garbitzen zuten.

Berriz ere artilleriak jo zuan. Abiazioak ere bai. Gorrien trintxerak, ke utsa ziran.

Ostera abitu gera, tankeakin-da. Ta, ia illuna allegatuan ezkerreko exkiñatik falanjeak sartu ziran. Gu beste aldetik sartu giñan; bañan aiek aurrena. Aiek artu zuten trintxera.

Falanje aiek, Burgos'koak edo ez dakit zer zuten izena. Bat aiekin zebillena, Joxe Mari izenekoa, naparra bera, bañan Astigarraga'ra ezkondu zana. Arrubixulo izena zuan etxea bazan or, lenago sagardotegia ta gero pentsu-almazena izana, ta orrera. Orain ura ere, nere gisa, zartua.

Trintxera artuta, ildakoak an zeudenak bi lagunek artu ta bota kanpora, ta gu sartu. Trintxera oiek ere txikiak baitziran. Denbora gutxian egiñak.

Ildakoa erruz zegoan. Alde bietatik berdin. Andik eta emendik, illa asko.

Biamamonean, eguna argitu zuanean, artu genduan Conclud.

Concud artu ta elurra asi zuan. Bañan elurra egin zuan onenbestekoa bai: metroa-edo.

Illundu zuan ta gau guztian an egon giñan elurretan. Ta otza esaten zuten, guk ez dakigu, emezortzi grado egin zuala utsaren azpitik.

Urrengo goizean, an etzan iñor ere gauza, ez fusilla disparatzeko ta ez kargatzeko. Danak otzak amorratzen. Danak olaxe: *dardar-dar...* Ibiltzeko ere ez giñan gauza gu.

Amarrak alde ortan, patarra ekarri ziguten. *Asaltaparapetos* esaten zioten.

Nik ori, len esan dedan Peña Lasa artan probatua neukan. Laguna banuan, Murillo izenekoa, naparra. Kozina laguntzera joan giñan, an garrafoia zuten ta arek egin zuan pixka bat ostu.

Gero, lotarakoan edaten genduan. Otz egiten zuan, ba, Peña Lasa ortan. Len esan dizut milla ta zortzireun metro dituala, uste det, alturan. Pixka bat edan ta bero-bero eginda jartzen ginduan. Murillo ori ta biok alkarrekin ibiltzen giñan ta ederki.

Ta Teruel'en ori eman zigutenean, nik orduan esan nien lagunai:

– Ez dik asko edan bearrik. Pixka bat naikoa diagu.

Kantimplora ta beste baso bat izaten genituan, ta baso ori bete-betea eman ziguten. Guk edan ta gero gañetik geiago bazala:

– *Venga más, si queréis.*

Ta batzuek zer egin zuten? Berotzen asi ziranean, geiago edan.

Arek, ordea, udarako biotzean bagiña bezelako berotasuna ematen du. Uraxe edan genduan ta akabo; etzan otzik eta ezer ere Ta gau guztian lorik egin gabe baigiñan, asko edan zutenak seko lo artu elur gañean.

Ta lo artu zutenai, batzuei egin zitzaien tripa aunditu, ta oiek il egin ziran. Ta beste batzuei, askori, anakak jelatu, ta gero moztu egin bear. Aiek ola ondatu ta galdu ziran. Bañan ni lenago probatua. Bai; dabillenari tokatzen zaizka...

Tolosa'koa ere bazan an gurekin mutil bat, galanta. Ari ere bi anakak jelatu ta moztu. Joxe Tolosa Etxeberria, izen-apellidoak. Karro txiki batean ibiltzen da.

Aspaldian ez naiz Tolosa'ko perian izan; bañan perira joan ta arek ikusi ezkerro, urrutitik ere ojuka asten zan:

Ikaragarria zan gizona. Bikaña. Gero lodiago egoten zan.

– *Lazkano...!*

Jaungoikoak bakarrik daki Teruel'en zenbat mutil geratu ziran. Ta bizirik atera giñanak ere, ederki sufrituta. Bat gaizki dagoanean, aren ondoan dagoana ere askoren faltan ez da egoten-da.

Sagardia zan gure jenerala, ta antxe eritu

zuten ura ere. Kañonazoa etorri, teniente
aiudantea jo ta aidean eraman. Ta berak
urratu txiki bat bakarrik. Bañan kategoria
gora...

Gu, Conclud baño aurreraxeago giñan,
Teruel'go kanposantuaren ondoan, Teruel
bertan genduala.

Jatekoa ekartzen ziguten, ta patarra edo
zera ori ere bai. Orrekin berotzen giñan, gau-
za giñanak.

Egun batzuk alaxe pasa genituan an,
bañan deseginda geratu giñan.

Elurra kendu zuanean, kamioiak zeratu
genituan. Zaku ikatzakin nola kargatzen
dira? Berdin-berdin, bañan gizonakin: *taka-
taka, taka-taka*, bat bestearen gañean. Pillak
egin ta kamioiak martxa.

Cella erri ortan zuloak egiñak zituzten,
ogei bat metro luzeak, bi edo iru metro
zabal, ta lau-bost metro altuak, eta antxe
sartu.

Alde bietakoak eraman ta danak batera
sartuko zituzten, batekoak eta bestekoak.
Gerra armatzen duanari, ez baitio inportik
ezergatik. Gerra negozio zikin bat besterik ez
da-ta.

Ta orduan neri gogoratu: Altza'ko Amue-
der'en bazan mutil zar bat, Martxial, Patxiko
Amueder bertsolariaren anaia.

Patxiko ori Antigua'n bizi zan. Bañan
jaiero-jaiero Amueder'era joaten zan. Or fru-

ta edo berdura pixka bat artzen zuan, ta gero bi anaiak gure etxera etortzen ziran, Otxoki gure etxe ori taberna baitzan.

Baratzategi'ko beste aiton bat ere izaten zan. Aiton arek bertso batzuk kantatzen zizkion Patxikori, ta onek beste bi-iru bertso-rekin erantzun.

Martxial ori, gerratean karlistetan ibillia ta orduko zerak kontatzen asten zan. Askotan onela esaten zuan:

- Belabieta'ko batallan, amalau gurdi gizon bete ituken...

Gu mutil koskorrak eta aiek parrak egiten genituan, arek esandakoak disparateak ziralakoan. Aiton aiek tiroka ari izanak ziralta ta gizajotzat jotzen genituan.

Bañan gertatuak izaki aiek ere; ta, kamioiak gorputzez bete-bete eginda ikusi nituanean, orduan gogoratu.

Nere artean esan nuan:

- Guk parre egiten genion ari; bañan ara guri aundiagoa tokatu...

Gero, bizirik giñanak erretiratu egin ginduzten, eta erri txiki batera eramane. Izena ez dakit zer zuan. Jenderik etzegoan apenas. Geienak andik aldegiñak-edo.

An frentea, esaten zutenez, ikusten etzala zegoan. Urruti. Ta utsa bitarte guztia. Mendi-muturretan mordoska batzuk. Beste iñor

ez. Ta gorriak atzeko mendietan. Bañan aien arrastorik ez genduan guk nabaitu.

Nik esaten nuana:

– Frente batean gogor egiten dutela jakinda, an aurrera zertara joan? Zertan jo ta jo ari? Zertako ainbeste gizon il? An egon geldi eta beste toki batetik saiatu...

Emen, Bizkai'ko gerran, berdin-berdin egin zan. Ortik ezin badezu, jo Santander'tik edo jo Asturias'tik, León'dik gero joan giñan bezela.

Antxe egon giñan, jende berri etorri bitartean. Gutxi geratu baigiñan. Batzuk tiroakin, besteak jelatuta, geienak ospitalera edo zulo-ra. Bederatzireun bat giñala Teruel'en sartu giñan, ta berreun bat aterako giñan andikan gure oñetik. Ta batalloia berriz osatu bear, iñora joateko.

Batzuk kuarteletik ekarri zituzten, kinta berriak deituta. Ta beste batzuk, bajakin egon da gero, berriz gugana, kuarteletik pasa gabe. Ta batalloiak danak artu.

Gu, Villarcayo'n bildu giñanean, danak kinta batekoak giñan; ta gerra-bukaeran, kinta guztietakoak. Asieran danak riojanoak edo euskaldunak; bañan gallego, asturiano ta danetik nastu giñan azkenerako.

ARAGON

Erri artan giñala, komandanteak eta teniente medikuak jakin dute badirala eper-rak-eta an ere. Billatu dituzte eskopetak eta kartutxoak, eta ea ekartzen genduan aparria.

Atera giñan ta mendi txiki bat an, ta medikuak alde batera artu zuan ta nik bestera. Konejoa neri atera, tira nion eta aurrera. Esan nuan:

– Or sartu dek bada!

Joan nintzan ta illa zegoan. Geroxeago, medikuari eperrak atera, bost eper, ta arek bat bota.

Besterik ez genduan billatu. Errira buelta-tu giñan ta komandanteak:

– *¿Qué?*

– *Pues el médico ha matado una perdiz y yo un conejo.*

– *¿El médico una perdiz? El médico caza cuando va Lazcano; pero si no va Lazcano, no caza el médico.*

Egun artan bat botatzea tokatu medikuari, bañan komandanteak ez sinistu. Ta oraindikan ere, illa izango da, bañan bizi baldin bada, arek gezurra dala usteko du.

Andaluza zan komandante ori: Don Cándido Urbina. Kapitana berez eta erretiratuta zegoan. Bañan gerra asi zanean, berriz ere zeratu ta gure batalloirako komandante lonbratu.

Andikan Huesca aldera eraman ginduzten. Batalloi batzuk ezkerretara sartu ziran, Pirineo mendi oietara.

Beste batalloi batzuk, erriberaz joan giñan.

Huesca'ra ez giñan errira arrimatu. Ezkerretara utzi genduan ta bista-bistan genduala pasa giñan, batzuk emendik, besteak ortik, besteak andik, nun tokatzen zan.

Ibillaldi ikaragarriak egin genituan guk Aragon alde ortan. Beti oñez eta beti aurrera. Euria eta eguraldi onak, danetik izan genduan.

Etzan tiroteorik izan. Etzigun iñork arpegi eman. Mendi aldera sartu ziran nunbait ere gorriak.

Badakizu zer egiten ziguten? Batenbat prisionero arrapatu ta:

– *¿Qué? ¿Hay mucha fuerza?*

– *No hay nadie. Todos se han escapado. Es una desbandada.*

Ta bazeuden mendi koxkorrak ta, urren-go mendia jotzean, an egoten ziran pronto, konpañiren bat-edo. Eta ara arrimatzen giñanean, *ta-ta-ta-ta-ta...*

Gu danak al zan tokira sartu. Ta, kañoiak-eta etortzean, *pinpipi-panpapa...* Joaten giñan eta iñor ere ez. Danak itzuli egiñak. Ta urren-go mendian itxogin berriz ere. Orrela egun askotan ta askotan.

Erri askotatik pasa giñan. Bañan izenik etzait orain batere gogoratzen. Barbastro gogoan daukat, erri aundi bat. Ez giñan bertan izan. Aldamenetik joan giñan.

Gero urrena ibai aundi bat izan genduan; Cinca izena. Ibai zabala, bañan ura bajua zegoan. Belaunak baño goraxeago. Oñez pasa giñan beste aldera.

Gu pasa giñan tokian, etzan zubirik. Zubiak lenagotik dinamitaz boteak izango zituzten.

Ta zer egiñ ziguten? Gu baño gorago pantano aundi bat zegoan ta presa idiki, ta bost metro baño altuagoko urak etorri. Beste tropa batzuk orduan ibaia pasatzen, ta mutil asko ito omen zan or, bai.

Gure bistan etzan ori gertatu. Gu, ibaia pasa, aurrera segi, mendi koxkor batera igo ta an jarriak giñan.

Ibaira arrimatuta ere, ura ikaragarri zegoan ta ezin beste aldera pasa.

Alde artatik eunka mando ta mandazai, arrantxoakin ta munizioakin. Mandoakin ibiltzen dira, ba, oiek mendietan. Ta artilleria ta ziran guziak ere antxe.

Iru egunean an egon giñan gu beste aldean, ezer jan gabe ta edateko ere ez.

Ibaira etziguten uzten joaten, urrutitxo genduan eta. Putzu-zulo bat bazegoan ta andik ateratzen genduan ura. Txalburuak-eta bazebiltzan, bañan arekin kendu egarria.

Joan ziran soldadu batzuk aurrera ta txerri bat arrapatu zuten txabola batean-edo. Ekarri, il ta ura jan genduan.

Bañan konpañi osoarentzat txerri ori ta bakoitzak puxka bana besterik ez. An egon bear, goseak amorratzen.

Eskerrak ur zikin ari. Andikan edaten genduan ta arekin pixka bat diximulatu. Beste zer jan ta edan gabe, aguanta iru egunean. Otordu bakarra egin genduan ta ura ere txarra. Txerri arekin ezta ezertarako ere.

Gorriak, berena egin ta itzuli egin zuten. Ara etorri izan balira, gu jango ginduzten. Esan bezela, guk ez geneukan muniziorik. Irureun kartutxo bakoitzak. Bañan aiek bereala tiratzen dira. Atakerik etzigun iñork jo ta ondo atera giñan.

Zubia, badakizu, ingeniero zapadore oiek

berealala egiten dute egurrezkoa. Bañan ainbesteko ibaian nola egingo dezu, bada? Iru egunean egin zuten, ta orduan kamioiak eta mandoak eta munizioak eta arrantxoa pasa.

Ogei ta bi urte antxe kunplitu zitzaizkidan neri, iru egun aietako batean. Martxoaren ogei ta amarra. Bost puntukoak iru edo lau bertso badira or jarriak eta etxera bialduak. Papera-ta banituan ta zer edo zer egin bear denbora pasa:

Bertso berriyak jarri nai ditut
nere pasadizuentzat,
motibua're badaukatela
ala iruditutzen zat.

Suerte txarra tokatua da
gerran gabiltzan auentzat,
besteren berri ez dakit ondo,
ala izan da neretzat,
ai zer negarra etorriya dan
senire-gurasuentzat!

Milla beatzireun ogei ta
amazazpiko urtian,
kuartelian sartu ninduten
Donostiya'ko partian.
Suerte ori izan genduen
denak alkarren artian,
amaikak ori ondo badaki
zala Martxuen labian,
geroz askotan egondua naiz
lo egin gabe gabian.

Martxuak ditu ogei ta amar,
nago Aragon'go partian,
oi ta bi urte kunplitzen zaizkit
emengo mendi batian.
Aspalditxuan onela gabiltz
askoren errematian,
geren biziya arraixkatuaz
il ta erituen tartian,
ibillera au etzait aztuko
bizi naizen bitartian.

Orra lau bertso, ama, nik jarri
bedorren konsolagarri,
urte betian juntatu gabe
ni nautelako ekarri.
Pentsatutzen det askotan triste
egongo dala bedorri,
laster gerade etxian eta
lasai ta kontentu jarri,
beste oinbeste esan bezaio
etxeko erraña orri.

Arrantxoak-eta ekarri zituztenean, artu
alimentuak eta zerak, eta aurrera berriz ere.

Len esan dedana, Aragon alde ortan ata-
ke gogorrik ez genduan izan. Bañan beti
bajakin. Deskarga egiten zuten ta ospa gero.
Ola ibilli giñan.

Gero, nun zan ura? Nunbait ere or,
bañan ez baitakit nik orain. Urteak joan dira
eta gure burua arindu ere bai.

Atake latzak izanak ziran mendi batean.

Eta egin ginduzten gu ia illunabarrean artu ta ara pasa. Bañan guk ez genduan kontrario gogorrik izan.

Kañonazoakin-da illak, asko zeuden an. Gureetatik ere bai, bañan andik geienak. Aiek, artilleria ta armamentua askoz ere gutxiago baitzuten.

Azemileroak illuntzean etortzen ziran. Allegatu dira gu izandako tokira ta gu palta. Emendikan San Marko'ra-edo bezela artu ta eramanak. Ta gabean ez baitziran piatzen, aiek bertan geratu.

Bigaramonean, aiek ara ta gu aruntzago joanak. Ala, ezer ere jan gabe, bi egun pasa genituan.

Zoko batean, ganaduaren zera arrapatu genduan: arbia. Artu ta *krak-krak*. Ederra zegoan.

Geroztik probatu det ta mikatz-mikatz da. Bañan orduan gozoa iruditu.

Arbi kaskar batzuk ziran eta laster jan genituan an ziran guztiak.

Or asko ibilli giñan gu, bai. Euskaldun baten eriotza ere izan genduan.

Errenteri'koa zan bera. Arruti apellidua. Jatorra mutilla. Uxuene'koa. San Marko'tik ezkerrera ta azpiko aldean dago, Txirrita baserritikan gora igota, kaxko batean. Baserri txiki bat.

Atake gogor bat egin genduan. Konpañi

bat aurretik joan zan, ta besteak atzetik laguntzen. Egunean-egunean aldatzen da ori. Aldi artan, aiek ziran aurretik, ta gu laguntzen.

Pasatzerakoan, erituta ikusi nuan mutil ori eta:

- Zer egiten dek or, motell?

- Eritu egin niotek.

- Ondo ago orduan. Ospitalera eraman ta libre geratuko aiz.

Bai, ba. Eritu ezkeru, ospitalera eramaten baitzuten. Bañan arek:

- Ez. Naikoa badiat -esan zidan.

Arkaitz baten ondoan zegoan ta onela esan nion:

- Or dituk kamilleroak.

Nik aurrera segitu nuan tiro tartean: *ta-ta-ta-ti-ta...* Nere martxan joan bear. Ezin ba gelditu.

Etorri ziran kamilleroak, artu zuten ta, zeramatera, bidean il zitzaieten. Ta zer egin dute aiek? Erriko kanposantuan sartu, utzi depositoan ta beste erituen billa segi.

Ta baja, iñor konpañian iltzen bada, konpañiak bialtzen du: Olako ta olako, illak. Bakoitzak bere numeroa eramaten baitu, numeroa ta izenarekin. Ta, ospitalera allegatuta iltzen bada, andik.

Batak edo besteak, ildako danen berri bialtzen zuten. Errira segituan abixatzen zan.

Bañan ura bidean il baitzan, iñork abixatu ez eta etxean ez enteratu illa zanik. Mutillaren arrastorik gabe gelditu ziran. Gerran asko izaten dira olakoak.

Andik denboretara, gu gerratik etorri ta gero, gizon bat azaldu zan gure etxera:

Arekin nintzala entzun zutela ta ea zerbait ere bai ote nekian.

Baietz, esan nion. Ola ta ola il zala ta kamilleroak erriko kanposantuan utzi zutela, ta abar.

Gertakizuna nola pasa zan kontatu nion. Arrastoa, orixe atera zuten aren etxekoak.

Bañan ez dakit orain zer erri zan. Tokia bai, gogoan daukat: erria emen eta kanposantua ortxe. Gero, mendi koxkor bat, mendi txikia, ta aldapa beetik gora. Gorriak kaxkoan ziran ta guk ura kendu nai. Ola ibiltzen giñan-da...

Beste batean, bagoaz aurrera ta tiro batekin jo ta iztarra autsi zioten guretako mutil bati.

Arrua'koa zan ori, Santiago Oiartzabal. Len esan bezela, bertsoan ere pixka bat aritzen zana.

An txabolak izaten dituzte masti ta soroe-tan, gariakin-eta lanean ari diraneko, ta alako txabola baten ondoan giñan.

Nik ez nekian eritutako ura zein zan, bañan tenienteak esan zuan:

– *A ver si hay alguien que traiga aquel herido.*

Nik esan nion:

– *¿Puedo dejar aquí todo el armamento?*

– *Sí, sí, sí.*

Danak utzi ta joan nintzan korrika. Urrutitik tiratzen zidaten eta ezin tiro onik egin. Batzuk gañetik pasatzen ziran, bañan besteak lurrean jo ta ezagutzen zan balazoa, *txif... txif... txif... txif...* autsa arrotzen baitzuten.

Korrika joan ta beraren ondoan luze-luze etzanda jarri nintzan.

Artu nion besoa lepoaren gañetik, bi anken erditik beste besoa, ta trabeska jaso nuan bizkarrean.

– Ai, ai, ai! –egiten zuan–. Motell, utzi nak, utzi nak, min artzen dit eta!

Uzteko marru ederrak arek. Iztar autsia ez baita ederra izango. Balak ezurraren erdian jota *klak!* autsia.

Bañan nik utzi? Eutsi bai! Artu andik ta korri. Nik nereea ere salbatu nai nuan; ez arena bakarrik.

Berriz ere, *txif... txif...* balazoak lurrean ta autsa. Bañan etzan ezer ere pasa.

Txabola ondoan utzi nuan. An jarri ezkerro, ura ondo zegoan. Ta ni, artu nere katxarroak eta aurrera.

Kamilleroak ere lagunak zituan, euskaldunak. Axintxio Urrestilla bat, Arrua edo

Zestua edo orkoa. Bertsotan oso poliki egiten zuana. Bestea baño geiago zan ori ortan.

Santiago Oiartzabal ori Donosti'n ikusi izan det geroztik. Erren pittin bat egiten du; bañan utsa. Ondo jarri zan.

Beste batean, illunabarrean, trintxerak egiten asi giñan. Gauerako preparatu egiten giñan beti, kontraatakea baldin bazan ere. An ari giñan atxurrakin-da zuloak egiten eta arri konkorrak biltzen.

Aldamenean, sasi-pilla zegoan, sasi-pilla aundia.

Ara joan naiz eta bi gizon exerita. Nik zera ibiltzen nuan: fusil ametralladora; ta gerrian rebolber aundi bat. Fusil ametralladora an utzia nuan, arriak-eta biltzeko, eta rebolberarekin joan ta:

– *¡Alto! ¡Manos arriba!*

Gorriak ziran aiek, bildurrez gordeta zeudenak. Bi kaja esku-bonba zeuzkaten. Nunbait ere oien billa joanak ziran, eta zer egin dute? Aurrera ez joateagatik-edo, gorde. Ta gu allegatu ta berak ez konturatu.

Esan nien:

– *Suban arriba.*

Igo ziran ta sarjentoari entregatu nizkion.

Soldaduak artu zituzten ofizialengana eramateko, ta batek *ras!*, alde egin zien.

Mendi artan oliboak ziran. Emen salla ta

gero paretea. Ta an salto egin ta itzuli egin zuan arek.

Bestea an eraman zuten. Guk ez genduan beste mixiorik: iñor arrapatzen genduanean, ura entregatu ta segi aurrera.

Gero, gabeen, kontraatakea eman ziguten. Ametralladora-ta asko ta tiroteo ikaragarria armatu zan.

Gu ere, len esan dedana, pixka bat preparatuta baigeunden.

Bañan goizean ez genduan alerik ere billatu illik.

Guk mendia ez ezagutzen eta aiek bai, eta zeratik etorri: pareten kozken azpitik. Ta guk tiroa gañetik pasatzen.

PIRINEO

Andikan Tremp'era eramán ginduzten, ta ortik Esterrí de Aneu, Sort, Llavorsí... Kamio batean daude erri oiek. Ordurako beste tropa batzuk zeuden an; eta, gu allegatzean, aiek erretiratu egin ziran.

Ara joan ta *Puerto de la Bonaigua*'ra igo giñan. Apirillaren 17'a zan. Kamioa irikia zeukaten; bañan or elurra zegoan, bazterreko zokonetan, igual lau metro altuko. Ta dana jelatua ta azpitik ura: *rrruuummm...* Goien, danean elurra.

Karabinero batzuk-edo tiroka asi zitzaizkigun. Ta gu *tipiti-tapa* asi giñanean, Prantzi aldera joango ziran aiek.

Goiko kaskoan, kamineroen etxea zegoan. Ederra etxea. An jartzen zuan: *2.072 metros sobre el nivel del mar*. Ta ura txoko batean dago. Or mendia ta or mendia. Ikarragarriak mendiak!

Gero, andikan beera ta beera jetxi giñan, Prantzi aldera. *Valle de Arán* edo ola uste det dala. Bi erri txikitan allegatu giñan: Tredós eta Salardú. Erri kaskar-kaskarrak.

Etxe zarrak. Bañan aiek egurrak eta aiek frontalak zeuzkaten! Ta tellatuak aldapa aundikoak.

Ikaragarrizko elurra egiten zuala, esaten zuten, an. Egin bear. Gu bide askoan jetxi giñan, bañan ala ere auskalo zenbat metro altu diran erri oiek.

Neguan, berak esan ziguten, goizean egiten zutela, jeiki ta egunero elurra palakin kendu, ta errekek eta bideak idiki, ura ekartzeko. Ta udaran, egurra ebaki negurako, su egiteko. Negu guztian elurpean egoten zirala.

Gu an geratu giñan. Gero, beste batalloi bat joan zan andikan aurrera, frontieraraño. Ta gu, ortikan atzera bueltatu ta Bonaigua'ra igo; beste aldera jetxi ta berriz ere Llavorsí edo orrera.

Antxe, mendi aietan, denbora asko egin genduan. Bildurgarriak mendiak.

Elurra etzuan kendu urte guztian mospeletik. San Antonio egunean, elurra egin zuan. Zuritu ez, bañan elurra. Ta bestea, Abuztuan egin zuan berriz ere. Elurra *po-po-po* zuri-zuri, bañan zuritu gabe orduan ere.

Ur edaten asi ta otzarekin ez da ortzetan

aguantatzen. Urak bai garbi ta ederrak. Ur asko.

Bañan or, nola azitzen dira olako piñuak? Beti elurpean ta piñua ikaragarri baitago. Piñu aundiak. Auskalo zenbat urte dituzten.

Larre motz ori goien izaten da. Arkaitza ere asko an, bañan elurpean.

Gu giñan tokian, arboladi asko zegoan. Len esan dedana, piñua asko. Ta bestelako arbol zarpallak ere bai. Pagoa ez. Bañan ametza ta aritza bai.

Baita ezpela ere. Ta otea bezelako ta otea bezin aundia egiten dan zera bat ere bai. Asko da or zatarrerria.

Errira, bost orduko bidea bagenduan eta ez giñan joaten. Bero aundiak egiten omen zituan an udaran. Inbutuan ura nola pasatzen da? Berdin-berdin sartzen da eguzkia an bean, errian, ta ikaragarri berotzen. Bañan goien ez; an ez da berorik.

Sarreran ez; sarreran etzan or ezer ere izan. Bañan gero, kontraatake asko eman zuten gorriak. Menditik sartzen ziran. Denbora askoan eman zuten lata. Illebete baño geiagoan bai. Ta mendia kendu ere bai.

Gu ez giñan an. Gu urrutiago geunden, emendikan Erretereri'ko mendira bezela-edo. Beste batalloi bat eta falanjekoak ziran an.

Tiroteoa gau guztian, ta zer egin zieten?

Aiek tokia ondo ezagutzen, ta bueltan artu ta mendia kendu. Itzuli egin bear.

Bigaramonean, eguna argitu zuanean, jo ta txikitu kañonazoakin, ta kendu berriz ere.

Gu giñan tokian, piñudi osoa moztu zuten ametralladorakin ta bonbakin. Gabero *tipiti-tapa* asten ziran ta *ifuego!* Bañan piñu arbola aundiak. Amabost edo emezortzi bai, mendi-kaskoan. Jo ta dana moztuta geratu zan.

Or izan zan gañera: an egun guztiak berdiñak zirala, igandea noiz zan etzitzaiola antzematen, jaia zala ta meza eman bear zala.

Ala, prestatu genduan piñudi batean, egur batzuk-eta moztuta, aldarea bezelako toki polit bat.

Ta, mezetan giñan denboran, meza erdiko garaiean, *fuego! darrrrr...* ametralladorakin beste aldekoak.

Nik ez dakit nola jakin zuten, bañan batenbatek bazekian ura, guk zer egin bear genduan, naiz-ta piñu tartean izan.

An balazoa *tititi-tata* euria bezela, ta al zuanak al zuan tokira korritzen zuan. An bizia aurrenekoa.

Bañan gero, nunbait ere etsi zuten eta etzan tiroteorik izan. Ta, tirorik ez bazan, gu pozik.

Txabolak-eta bagenituan. Guk, allegatzen

giñan tokian, gau batekoa egin bear baldin bazan, orduan lonakin preparatzen genduan. Bañan geratu bear zan usaia baldin baze-goan, segituan egiten genduan txosna.

Egurra izan ezkerro, *tak!* eta *rak!* jo ta moztu. Jarri egur-puskak alkarren kontra, zotala gañetik, ta antxe lotarako tokia.

Danak sasoi ederra ta eskuadra ona giñan gu. Lau euskaldun ta kaboa Santander'koa. Bañan ondo konpontzen giñan.

Urrengo bertso auek, Pirineos mendi oie-tan jarriak izango dira. Ogei ta bi urte esaten du bertso batek; eta nik Martxoan kunplitu nituan urte oiek, or Apirillean sartu giñan, ta liteke ori ere. An denbora asko izaten bai-genduan, geldirik egon giñan-ta.

Kantu lanian asi biar det
lendikan daukaten griñez,
zerbait arrazoi esplikatzeke
Jesukristoren dotriñez;
ogei bat urte kunplitu zaizkit
ikasi nubela oñez,
besteren mende gabiltza eta
nora guazen jakiñ ez.

Ogei ta bi urte kunplitu zaizkit
mundura sortu nintzala,
orain artian nunai eman det
gizon tajuzen ¹ itzala;

¹ gizon tajuza: gizon tajuzkoa.

pakeosua beti izan naiz,
umilla ta serbitzala,
okasiyuan sartu gaituzte,
Jaunak bedeinka ditzala!

Naziyu ontan lautatik iru
bizi giñanak pakian,
jarri gaituzte okasiyuan
askoren errematian;
nere ezagunak pranko badira
sartutakoak lurpian,
ta beste asko beren denbora
guzirako itzalpian.

Jaunak, emango nituzke ondo
kasu onen notiziyak,
bañan etzaigu guri komeni
esplikatzia guziyak;
ainbeste leku pasa ditugu,
asko ditugu ikusiyak,
bestiak ondo bizitziagatik
jokatzen geren biziyak.

Esaten dute: «Ekarri zagun
Jesukristoren legia»,
ori egiya dala uste-ta
bizi diranak badia.
Baña guziyak nai dutena au da:
salba bakoitzak beria;
Jaunagandikan datorrena ezta
olako formalidadia.

Sei bertso berri kantatu ditut
deskantsatzeko barrena,
mundu guziyan pakia dala
diye gauzik ederrena;
modu orretan konprendi zagun
nik esplikatzen detena:
zeruan nola sartu liteke
gerra au sortu zubena?

Euskerazko bertsoak, bañan pasatzen
uzten zuten.

Euskeraz bakarrik iskribitzen zuten Goie-
rriko mutillak. Erriko apaizarekin ikasita,
euskeraz aiek etxera. Etzekiten besterik.

Nik, berriz, erderaz egiten nituan kartak,
guk eskolan erderaz ikasi genduan pixka bat
eta. Bertsoak euskeraz.

Beste lau auek ere Pirineo aldetik bial-
duak izango dira:

Milla beatzireun da
oi ta emezortzi urte
Kristo jaio zanetik
onera arte;
gerr'au dabillela're
bi izan biaute,
nere entendimentuak
ala esan naute.
Legerik ez bete,
ordenak aparte,
juramentu fuerte,
Españiya'n parte,

gezurtzat alferrikan
ukatzen dute.

Askok esaten dute:

«Au negoziyua!

Nik badet Jainkuakin
partiziyua!»

Zuzen artu ezkeru

deklaraziyua,

geienak Judasekin

dute soziyua.

Zer ofiziyua!

Oin kondiziyua

da ernegaziyua,

ez deboziyua,

euskaldunen kontrako

traiziyua.

Euskaldunaren kontra

badaukate griña,

asko ori ez degu

pentsatzen baña;

gauza guziyak badu

munduan tamaña,

guretzako dutena

sufritu eziña,

aspaldi egiña;

nik daukaten miña,

edozeñek aña,

biartua zaña;

billatu egin bear

orren ordaña.

Orra lau bertso jarri
beatzi puntuan,
gusto duen guziyak
artu goguan;
senper ikusten pranko
ai gera munduan,
pobre inozentiak
alkarren onduan;
estadu senduan
jokatzen genduan,
baña beranduan
lan egin genduan;
amaika il digute
azken orduan.

An giñala, teniente batekin asistente jarri
ninduten. Extremadura'koa zan, komandante
edo jeneral baten semea. Almeida apellidua.
Bañan gaixotu ta etxera joan zan. Ta ni
libre-edo geratu nintzan, aterea bainengoan
konpañitik arentzako.

Orduan, aprobeatzeko, komandanteak
egin ninduan, mendi aietan ez genduan ezer
ere ta Zaragoza'ra biali, ofizialentzat fruta
pixka bat, konejoak, ollo bat edo beste ta ola-
koak eroatera. Jateko gauza dana, bai.

Nik zer egin nuan? Binefar'era etorri
kamioietan, an artu trena ta zuzenean
Donosti'ra. Etxean etzekiten ezer ere. Ta
badakizu: ama beti ama, ta ura beti marruz
olakoetan.

Alferez batek, enkargua emana zidan:

Zaragoza'n, bera ere angoa zala ta aren etxean karten bat-edo uzteko. Aruntzean, jetxi Zaragoza'n ta enkargu ori egin.

Urrena, lengusua neukan nik an lanean, ogei ta geiago urtean egon zan, eta ari bixita egin. Gero, arekin Pilarica ikustera joan. Pilarica, ola dago: eliz aundi baten barruan, irudi txiki bat. Eta an, bonbak egin zuala-ta, zuloa zegoan goien, tellatuan; ta bean, jotako tokia. Beste pulamenturik ez det emango, bañan ori bai; ori ikusia nago ni.

Iru egunean egin nuan buelta. Batean, andik onera. Emen eguna pasa ta Zaragoza'ra. An ori ikusi, gauzak artu ta mendira.

Binefar'tik gora joango bazan, konbinaziorik etzegoan. Gu orduan Sort'eko goien giñan. Orain beatzarekin nola egiten da? Ba, garai artan, eskubia altxa ta zabalik jarrita egiten zan. Ta kamioi zarren bat gelditzen bazan:

– *Voy para tal sitio.*

Puska batekin arekin joan, gero jetxi ta berriz ere eskubia altxa. Danak militararak, bañan bakoitza bere serbizioan.

Ola joaten giñan batetik bestera. Edo joan bearra zegoan. Etzan beste erremediorik.

Guk or, Pirineo aldean, denbora-puska aundia egin genduan. Uda osoa. Bañan gero, Kataluña'ko alderdi ura ia menderatu zanean, Calatayud'era eramán ginduzten.

CALATAYUD

Pirineo mendi oietatik Calatayud'era ekarri ginduzten, kamioietan. Or illebeta-edo pasa genduan. Matsa eldua zegoan eta udazkenean izango zan, Urrian-edo.

Calatayud erri polita da. Erriberak aberatsak eta fruta asko egiten da or.

Fruta-arbola izugarriak. Udare-arbolak baziran or, udare-arbol zarrak, ikaragarri galantak, bi besoekin arrapatzen etziranak.

Erriberak, berriz, berdin-berdiñak, eta an babarrun motza-ta, piperra-ta... Piper-sallak bai galantak. Gero, alde batera, mendi xamarra, ta bestean ere mendi xamarra, ta aietan matsa ta ola.

Bañan Calatayud'en, orren erri ederra ta urik ez dago. Ibaia pasatzen da, Jalón izena, bañan eltzea egosteko ta jana maneatzeko ez omen du balio ango urak. Kanpotik ekartzen

zuten barriketan, mandotan ta karrotan artuta, ta saldu egiten. Kalderako erreala pagatzen zan. Garai artako diru asko zan.

Gu olako tokitan ondo egoten giñan. Ogia billatzen genduan, beste batek beste zeozer ere bai, ta ardoa, berriz, ona. Guk, erri koskor batera allegatzen giñanean, arrapatzen genduan guztia jaten genduan.

Calatayud'en amabost bat egun pasa ta andikan Ateca'ra eraman ginduzten. An beste amabostaldi bat egin genduan. Calatayud'etik amar bat kilometro edo ez dakit zenbat izango diran.

Ateca ere erri ona da, bañan Calatayud'en baño berdura ta beste dana eskaxeago.

Erri oietako batean giñala, Ikaztegieta'ko batek bertso batzuk eskatu zizkidan:

– Jarri izkidak bertso batzuk, ola ta ola osabari bialtzeko.

Ala, aren izenean nik bertsoak jarri ta eman; bañan beste kopia bat nerekin gorde ta etxera biali:

Urriyak ditu ogei eta bi,
astera nua kantuan,
osaba Andresi esplikatzeko
zer posturetán nagan;
jan da erana urri antzian,
gauza ugari goguan,
obetuago esango dizkat
gerr'au bukatutakuan.

Gabak askotan pasatzen ditut
trintxeran lo egin gabe,
egunez berriz zorriyak iltzen,
beti enredutan gaude;
eta etxian bagaude,
obe litzake gerra bukatu
batzuk biar da, osaba, beok
aldi ortan ondo daude.

Onta ezkerro au esango det
gertatuzen dan kasua:
lo egin gabe pasatzen degu
iñoiz aste bat osua;
amaika aldiz gogoratzen zait
nere paraje gozua,
osaba, asko akordatzen da
zure illoba gaxua.

Calatayud'en italianoetara pasa ginduz-
ten, batalloiaren erdia-edo, batalloi berri bat
osatzeko. *Flechas Verdes*-edo esaten zioten.

Gure batalloian, soldadua emengoa zan
dana, española; eta ofizialak, italianoak.

Bestetan, berriz, soldaduak ere baziran
italianoak, lenago etorri ziranak. Españolak
eta italianoak nastuan, beraz.

Gure jenerala Emilio Batisti zan, motz
bat. Geroztikan ere aren izena aditu izan det
Itali'ko gertakizunetan, periodikoan-edo.

Italianoakin, fusilla etzan ohea. Guk
lenago alemana ibilli baigenduan.

Bañan eskuadra bakoitzak fusil ametralla-

dora izaten du. Ura batek eramaten du. Ta eskuadrak bost soldadu ta besteak ogeina kargadore eramaten dituzte bizkarrean arentzako. Kaboak, berriz, kaja bat repues-toakin.

Fusillik etzan ia usatu ere egiten italia-noakin. Fusil ametralladorak kargadore bat tiratzen duanean, berria sartu. Besterik ezer ere ez fusileroak.

Gero, konpañi osoa morteroakin, eskua-dra bakoitzak bana, mortero txiki batzuk. Eta beste konpañi bat osoa ametralladorakin.

Armamentua askoz ere ugariago emengo aldean. Emengoak, fusil bana eta ametralla-dora ale batzuk eta ola.

Erropa, emengoa baño ohea. Sendoagoa ta lodixeagoa. Traje bezela gañera.

Amabostean bein, bederatzi pakete ziga-rrero ematen ziguten errazioa: iru, tabako oria; iru, beltza; ta beste iru, iru izarrekoa, *tres estrellas*.

Nik artu ta gorde egiten nituan. Ta, lagu-nak danak erretzen zituztenean, esaten nien:

- Zigarroa erreko al dek?
- Ba al dek?
- To!

Paketea atera, *raka-raka* eman ta erretzen zuten.

BESTE ZENBAIT BERTSO

Iru bertso auek, lagun batek jarri arazi zizkidan, nun giñan orain gogoratzen ez bazait ere:

Bertso batzuek jartzera nua,
nere amiga Juanita,
negar-malkuak saltatzen zaizkit
ori pentsatzen jarrita:
zu mutillakin pasiatutzen,
ni gerrara etorrita,
paradero ona eman dirazu
emen orla ibillita.

Juanita, oso zalla dago orain
nere biyotza poztutzen,
egunez bero egonagatik
gabaz gerade oztutzen;
illunpietan guardiyan da
egunez zorriyak iltzen,
ez zu bezela neri utzita
bestiakin pasiatzen.

Lenago biyak ezkontuzeko
eman zendidazun itza,
bañan aspaldi alkarrengatik
aparte samar gabilta,
ondo badakit, ni engañatzeko
asmua artuta zabilta,
pentsatutzen det konserbatzia
zure zarrallaren giltza.

Lagun ori gero ezkondu zan, bañan ez
dakit zer famili zuan. Donosti'ra asko
etortzen zan ta antxe alkar ikusten genduan.
Esaten nion:

– Zer modu?

Ta arek auxe esaten zidan beti:

– Izurratua niok. Barren guztiak ustel-
duak zeuzkat.

Ta il zala lau edo bost urte badira.

Etxera karta egiterakoan, bertso bakarra
ere askotan bialtzen nuan, anaiarentzat.
Batean auxe:

Triste niok ni emen
andregaien faltan,
bakar bat billatzeko
desiu galantan;
aspaldi asko ai nak
eskaxtutzen plantan,
baten señaik bialtzik
ik urrengo kartan.

Beste batean:

Ara, nere anaia,
karta eskribitu,
zu zere nobiyakin
or zuzen segitu.
Nik billatu ezinda
oi nork erremeitu?
Erremeriyo danak
Jaungoikuak ditu.

Beste bi aukerak anaiak bueltan bialduak,
artarako arte puxka bat bazuan-ta:

Orra, nere anaia,
esana aditu,
erremeriyo danak
Jaungoikuak ditu;
neskatxak pranko triste
dirade gelditu,
bateonbatek oiek
estaliko ditu.

Kontestatzeko artu
egin det idia,
jarri dirazulako
arrazoi-bidia;
nobiya billatze'zun
or saia zaitia,
ezin badezu, emen
dozenaka dia.

Nere erantzuna:

Nere anaia, orra
atera iria,
ontzat artua daukat
zure itz-biria;
neskatxak aidanian
dozenaka dia,
ni faltan nago eta
orrela obia.

Arek:

Kontestatuko dizut
zuri, anaia,
emakumiarekin
etzaitzen fiya;
lengo sentimentuaz
egin zaitetz giya,
nola baitezun ori
gauza ugariya.

Ta nik:

Nere anaia, esango dizut
gauza bat oso klarua:
aizia baño ariñago da
zenbait gizonen burua;
justu ibilli biar omen du
irabazteko zerua,
negua da ta naiago det nik
infernuko su berua.

Badakizu: zer edo zer bialdu bear, ori bururatu eta ori jarri.

Beste bertso auek arrebari bialiak dira. Arreba ori Uba'ra ezkondu zan, reformatorioaren aurrean zegoan baserri batera. Bota zuten ori ere. Ortxe bizitu zan bera, bañan il zan. Iru alaba baditu, irurak ezkonduak.

Zure laguna bata Emili,
eta bestia da Justa,
biyetatik bat nere nobiya
ezin al leike ajusta?
Kontuk atera ditzela ondo,
oientzat besterik ezta,
neskazarren bat benik biar det
besterikan izan ez-ta.

Arreba, eman biar dizut nik
onelako abisua,
zure lagunak konsolatzia
dala gauza prezisua;
zure arrazoi maitagarri bat
badet goguan jasua:
zure lagunak amets eitia
ez da oso alkasua.

Orra, nere arreba,
Justa ta Engrazi,
nobiya billatzen
nai danian asi;
orain mutilletatik
gutxi gera bizi,
azkar ibillitzeko
dizut adierazi.

Bañan Engrazi deskuidatuta jarri. Emili baitzan. Nik, ordea, bertsoa jartzerako, Engrazi neukan buruan ta ura iskribitu. Emili ori orain Oikia'n bizi da.

Askotan, erri koskorretara joanda, zortzi bat egun pasatzen genduan. Ta, geldirik jartzen giñan denboran, batzutan iñora joateko dirurik etzan izaten, eta bestetan tabernik eta ezer ere ez, ta denbora pasa oiek jarri.

KATALUÑA

Negu-sarreran-edo, Calatayud'etik Kataluña aldera eraman ginduzten. Etzait gogorutzen nundik sartu giñan. Ori ez nizuke esango.

Asieran toki onak ziran; toki zelaiak. Gero, mendi koskorrak, bañan gari-sail asko. Fruta ere bai; almendra ta olakoak asko.

Bide asko korritu genduan or. Egunean, egunean, egunean, aurrera ta aurrera. Illuntzen zan tokian, parapettoa preparatu, arri koskorrak edo zerbait baldin bazan; ta batzuk goardian ta besteak lotan.

Negua zan ta otz egiten zuan. Guk lona bana eramaten genduan, *tienda de campaña*'koa; ta manta ta kapote bana. Ta egiten genduan lonak bota azpian, gero kapote bat edo bi, mantak gañetik eta irunaka jarri, alkarren beroan. Bañan batzutan jelatua

azpia; ta jelak, goiko berotasunarekin urtzen asten danean, oñazea ematen du beetik gora.

Ametralladoretako konpañiak pikatxoiak, palak eta atxurra eramaten ditu, ta aiei pikatxoa edo zerbait eskatu, lana egindakoan atzera eramateko.

Lur-azala egoten zan jelak gogortuta. Azpia ez. Jela ez da lurrean beera sartzen. Azala *kaska!* kendu ezker, ez da otzik nabaitzen. Ederki lo egiten genduan.

Gorriak egiten ziguten mendi-muturrean itxoin; ta, gu irixten giñanean, ekin tiroka andik. Guk, ametralladorak-eta preparatu ta *fuego!* Ta aiek itzuli andik, atzerago joan eta urrengo mendi-muturrean, edo babesza zeukaten tokian, berriz ere itxoin.

Gu, orrela, bakarren bat edo beste, batzuk illak eta besteak erituak, beti bajakin. Era ortan joan zan Kataluña'koa.

Kapitana genduan, bañan batalloian komandante egiten zuan. Arek onela zion:

– *Ai prigioneri non toccate niente. Trattate bene ai prigioneri.*

Askok arrapatu ta errelojua ta zeramazkiten guztiak igual kentzen zizkioten. Ta *non toccate niente*, ezer ere ez ikuitzeko edo kentzeko esan nai du orrek. Pixka bat ikasten asi giñan italianozen ere berakin-eta.

Egun batean, bagoaz aurrera ta *tipiti-tapa* tiroka asi zaizkigu mendi koskor batetik, eta tenientea il digute, kapitanaren aiudantea.

Andik jetxi gera beeko txoko batera, ta an iru prisionero arrapatu ditugu. Makil txiki bat eramaten zuan kapitanak eskuan ta asi da arekin prisioneroai burutik beera *tinkiti-tanka* joka. Guk, berriz, geren artean:

– *Non toccate niente? Trattate bene?* Ez iri min eman ditekenean! Orain ez dituk ba ondo tratatzen!

Teniente ori il zutenean, beste baja ale batzuk ere izan genituan. Antxe jo zuten Andoain'go Santa Kruz ere. Ura belaunetik eritu zan.

Guk or egin genduan, trenbidea nun ze-goan bazekiten gure jefeak eta, ura arrapatze-ra, aurrera ta aurrera joan, moztutzeagatik. Trenbidea arrapatu genduan ta atzetik gorriak etorri ta moztu kableak, telefonoa beti eramaten da ba.

Guk, berriz, ez genekian nola giñan. Iño-rekin komunikatzerik etzegoan. Erdian artuta geundelakoan, alde bakoitzara frentea prestatu genduan, danetan guardiak jarri, ta gau guztian antxe erne asko. An etzegoan lo egiterik. Bañan aiek egin zuten, gutxi izaki nunbait eta aria moztu ta ospa! Etzan ezer ere pasa.

Monserrat ere ikusi genduan. Arkaitz-mendi aundi bat da. Ernio bezelako mendi luze bat. Muturrean txuri-txuri ermita. Ermita edo komentua edo zerbait. Gu ez giñan gora igo. Gero, Manresa'ra allegatu giñan.

Erri aundi bat da. Kuartel txiki bat ere badu. Ta, or giñala, buka egin zan Kataluña'koa.

Egun batean, kalera atera ta lagunai esan nioten:

– Emen ardoa ta limonada nun ematen ditek?

– An bean saltzen ditek taberna batean. Bañan lanerako neskak zeudek or...

– Nai duana izan dedilla, gizona! Edaria ematen badute, guri igual ziguk.

Orduan balkoitik emakume batek euskeraz:

– Zuek nungoak zerate?

– Gu? Gipuzkoarrak.

– Bai? Ni ere bai; Bergara'koa. Emen ez dago sekretorik esaterik.

– Guri etzaigu inportik, edozer gauz esateko ere, geron martxan gabiltza-ta.

– Bai, bai. Ala da.

Ala, pixka bat izketatu giñan, ta gero esan zuan, erropik garbitzeko-edo baldin bagenduan, egingo zigula. Eraman genizkan alkandora zarren bat edo beste ta olakoak.

Bañan guk erropak eramane ta gaueko amaiketane ordena eman ziguten: bigaramonean goizeko seiretane atera bear genduala. Joan giñan berriz emakume orrengane ta esan genion.

Ta arek, danak bustiak zeuzkala, segituan danak beratzen jarriko zituan-da. Guk:

- Nai ta nai ez joan bear degu. Ez degu beste erremediorik.

Ta arek:

- Abitzerako etorri, ba. Orduko preparatuko ditut nik auek.

Danak garbitu, plantxarekin legortu ta goizean danak pronto jarri zizkigun. Zerbait kobratu zigun, bañan oso gutxi.

ALICANTE

Manresa'tikan Madrid'ko frente ortara ekarri ginduzten. Or Toledo'tik aurrera sartu giñan gu, Madrid baño eskubirago.

Huerta ere bada or beste erri bat¹, La Mancha'n-edo. Nunbait ere andikan giñan.

Egundoko kañonazoak eta egundoko asierak izan ziran. Bañan kontra egingo zigunik etzan iñor ere azaldu. Orduan errenditu ziran eta bukatu zan gerra.

Gu lendabizi bertan geratu giñan. Bañan gero Alicante'ra eraman ginduzten.

Gorriak zera egin zuten: danak itzuli Alicante'ra joan. Ogei milla persona esaten zuten izango zirala an portuan. Tropak allegatu ta etziran sartzen atrebitzen. Ikaragarria joango zala, besteak ere armatuak izaki-ta.

¹Huerta de Valdecarábanos. Toledo'ko probintzian.

Aiek barkuen zai zeuden, alde egiteko. Bañan barkurik pasako etzala-edo, nunbait ere emengo buruzagiak angoekin alkar artu zuten. Esan zuten zera sillatu bear zala: bakoitzak zeukan dokumentoa. Paperen bat-edo.

Eliz aundi batera pasa zituzten danak. Eliza izana, pareta besterik etzegoan-da. An etzan santurik eta santarik. Ateetan jarri sillatzeko, ta sillatu-ala botatzeko armak. Danak *danba!*, fusillak, pistolak, ametralladorak, zuanak zuan armamentu guztia, ta egundoko pilla egin.

Danak artu ta berriz ere portura. Ta, portura joan ziran denboran, *rau!* tropak. Danak entregatu, etzan barkurik-eta.

Gu ez giñan orduan sartu. Bañan gero esaten zuten, an kantidadeko balioa joan zala urera. Tropak ikusi zituztenean eta barkurik ez, relojua zuanak relojua ta besteak beste zerbait, ez entregatzeagatikan *dia!*, arrika putzura. Ogei milla lagunetan, batere gabe-koak izango ziran; bañan gauza ederrak zituztenak ere bai. Erruz bota zutela esaten zuten.

Gu joan giñanean, an bazan lenteja, oinbesteko lodi bai, portuan, lurrean. Ura nik ez dakit barkuak deskargatzerakoan botea izango zan-edo. Ta garia ere berdin.

Alicante'ko portura ateratzen zera ta alderdi batean gaztelu edo fuerte zar bat du,

mendi-puntta egiten duana. Beste mendia ere bai, beste alderdian. Bean, berriz, portua.

Gero, illebetean-edo, Muchamiel erri koskor batean egon giñan. Ala du izena, bai. Alicante'tik ez da urruti. Amar bat kilometro. Erria ez da aldrebesa. Legor ikaragarria bai. Bañan baratza puxka bat bazan. Ura nunbaitetik ere ateratzen dute makina batzurekin edo noriak in edo zerbaitekin. Ez dago bestela.

An limoi-sail aundiak ziran, ta naranjik ez. Orduan ez beñepein. Naranja, andikan Valencia aldera baita. Guk, joan batera edo bestera ta limoiak ostutzen genituan.

Gero, jana, badakizu, garbantzua edo badaezpadakoa ematen dute soldaduzkan, ta limoia bota ta askoz ere errezagoa jateko.

Gu egon giñan tokian, Muchamiel edo erri ortan, etzan mendi aundirik. Bañan len esan dedana: legorra, ikaragarri legorra!

Dana desegiña zegoan. Gerraren azkeneko bukaera ta al zuanak al zuan tokira itzuli joana. Ta beste batzuk, prisionero edo detenituak. Gero, deklarazioak-eta zirala, igual bi illebetean edukitzen zituzten. Orregatik, etzan jende askorik an. Ta ziranakin ere, ez genduan tratu aundirik izan.

Bi pizina zeuden, olako aundiak, ta ara joaten giñan korrika, ango beroarekin aguantatuko bagenduan. Ori, gañera, udaberrian zala, Apirillaren aurrenean bukatu zan gerra-

ta. Piszina batean ur gutxi egoten zan. Oneraño bakarrik. Nik igeri ez nekien ta an ibiltzen nintzan. Igeri zekitenak, bestera sartzen ziran. Zortzi metroko altura zala esaten zuten.

Egun batean joan ta piszina txikia ere bete-betea. Orduan lagunak asi zitzaizkidan:

– Au egin zak! Ori egin zak!

Asi nintzan ta *raka-raka* ederki igeri. Bai? Urrengo egunean aundira. Antxe ikasi nuan nik. Ikasi-edo, ibiltzeko aña beintzat.

Igeri ez da jakiten, norbera kobardeatzen dalako. Bi anak ibiltzen baditu ta besoakin ola egiten badu, igeri egiña dago. Ni antxe moldatu nintzan ta gustora.

Gu an geundela asi ziran mutillak lizentziatzen. Kinta zarrak segituan biali zizutzen, ba, etxera.

Nerekin orduan an zegoana, Pedro Arrondo, Zerain'goa, bi urte zarragoa ni baño; 35'ko kintoa. Illa da.

Ura lizentziatu zuten egunean, egundoko saioa burruka egin genduan biok. Bañan lagun. Zeñek zein bentzutu.

Andik alde egin zuan ta, andik urteetara, ni Añorga'n boletan nintzan, ta ura ere bolategietan ibiltzen zana izaki. Nik tira nuan ta gizon batek:

– I, Lazkano: ator onera.

– Zer dek?

- I ez al aiz ola ta ola ibillia?

- Bai.

- Ez al aiz Pedro Arrondo'rekin gogoratzen? Ez al dakik zer burruka-saioa egin genduan?

- Me!!! Bai, motell, bai!

ALMANSA

Alicante'ko edo Muchamiel'ko ori bukatu zanean, andik Almansa'ra pasa ginduzten, eta an beste puska batean egon giñan.

Erri ona da. Erriaren gain-gañean, arkaitz baten puntan, gaztelu aundi zar bat. Bañan ez giñan gu araña igo. Eta erritik aurrera, dana berdin-berdiña. Ango lurrak ez dira oso aberatsak; bañan naiko onak bai. Baratza puxka bat ere egiten dute. Alkatxofa-ta, sail aundiak ikusi genituan.

Or naranja erruz jaten genduan. Valencia aldetik ekartzen zuten, eta Almansa'n transbordo-edo egin. Leku aundiak zituzten estazioan naranja-pillakin. Orduan beiñepein bai, gu an giñala.

Noiznai egoten ziran an berrogei bagoi baño geiago, naranjaz beteak. Ta gu guardi egitera eramaten ginduzten. Ta an alde bate-tik jartzen giñanean, gure lagunak beste alde-

tik joan ta al zutena arrapatu. Guri inporta zigun orduan!

Ta erosita ere, ogei xentimo kiloa edo ez dakit zenbatean ematen ziguten.

Egun batean, retena tokatu zitzaidan neri. Guardia izaten da beti kuartelean, ta retenak ere an egon bear, guardiak faltatuko balu. Kuartela etzan, bañan kuartela bezelako etxe bat.

Nik zer egin nuan? Ara joan ez ta kalera erten. Ta neskaxa bat arrapatu ta kontu kontari an biok. Bañan sarjentoa etorri, artu ta prebentziora. Ez baitute ateratzea libre retenekoak.

Kuarto batean sartuta, an egon bear izan nuan egun bat-edo. Guri etziguten kastigorik ematen, gerran an ibilli baigiñan denbora guzian. Bañan, utzi ezkerro, lañeza geiegi artzen baigenduan. Pixka bat zeratu egin bear, errespeto puxka bat jartzeko.

Ta, an nengoala, bertso auek jarri nituan, denbora pasa:

Bertso berriyak jartzera nua
lasaitutzeko barrena,
esplikatuaz nolakua dan
nere pasadizo dena,
ogei ta zazpi illabetian
emen izandu detena;
oraiñ artian biar bezela
kunplitu degu ordena,
ta gaur kastiguz pasio gabe,
nere barrenak au pena!

Garagarrillak amairu ditu,
San Antoniyo eguna,
kuartelian kastigu batez
pena sufritzen deguna.
Lengo batian jarri digute
zori gaiztoko retena,
ura utzita nik iges egin
kunplitu gabe ordena,
oi da motibu arrastatzeko
nik izandua detena.

Kastigu au jarri digute
soldaduzkako fedian,
ondo ibilli ez geralako
jarri diguten birian.
Lenago gerran ibilli gera
demoniñuen legian,
orain nai dute errespetua
gutziz formalidadian,
nik ori ezin nezake egin,
neri iges egin zian.

Gerra-denbora pasatu degu
penatzen eta sufritzen,
bañan alare guregantikan
eztira asko errukitzen.
San Antoniori aritzen nitzan
egunero errezatzen,
okasiyotik libratutzeko
biyotzez niyon eskatzen,
bere laguntza ona izan det,
oi ez det gaizki juzgatzen.

Mutil gaztai tentaziyua
etortzen zaigu askotan,
serbiziya eiteko partez
gu asi giñan nesketan,
geren buruak izkutaturik
libratutzeko ustetan;
sarjento batek arrápatu dit
nola nagan izketan,
ez dadukagu broma aundirik
San Antoniyan pestetan.

Dozen erdiya osatu ditut
sentimentuz da dolorez,
gure Jainkuai pazientziya
eskatzen diyot faborez.
Nik dedan pena ezin lezake
iñork juzgatu balorez,
nerekin jua zan neskatxa orrek
izena zuben Mertzedes,
geiago onera ez etortzeko
eskatzen diyot mesedez.

Almansa'n giñala, altuen danak apartatu
ginduzten, Italia'ra desfileak egitera joan bear
zala-ta. Iru-lau euskaldun antxe giñan alka-
rrekin, gu ere berezita, eta esan genduan:

– *Si hay que ir iremos. Pero de nuestra
voluntad, no.*

Ta tenienteak:

– *No sé lo que queréis. Teniendo oportu-
nidad de ir a Italia, no os da la gana. Voso-
tros, que no habéis visto más que bueyes.*

Ta nik:

– *Eso es lo que quiero: volver a ver los bueyes que dejé.*

Ori esan nion tenienteari, bai. Erritan eman zigun arek.

Bañan etorri da komandantea, italianoa bera, nunbait ere esan diote batzuek ez genduala nai-edo Itali'ra joan, ta arek:

– *Tutti i battaglioni: At-tenti!*

Jarri giñan danak eta:

– *Volontari, chi vuole andare in Italia, avanti!*

Ta *rau!* aurrera mordoska bat. Gu ez; gu beste aldera. Nik esan nuan:

– Joan bear baldin bada, joango naiz. Bañan ni, militarren mende boluntario, ezta emendik orrera.

Aiek, berriz, Malaga'ra allegatu dira ta baporean sartu. Ta, itxasoan dijoazela, Europa'ko gerra asi, emengoaren bukaeran-edo piztu baitzan ura, ta or atera zaiote susmurra ara daramazkitela, boluntarioak ziralakoan. Orduan larri danak ere.

Gero, atzera etorri ziranean, berak esan zutena:

– Bai. Izan gera Italia'n bañan ez degu ezer ere ikusi.

Kapital batera iritxi ta andikan etzituzten mugitzen ere uzten. An desfilatatu, artu auto-

busetan ta beste kapital batera. An ere desfilatatu ta berriz ere aide! Ola ibilli zirala esan zuten aiek.

Jatena ere, otelean bai, bañan kazkar xamarra. Platera asko, bañan jateko gutxi.

Etziran gustora ibilli. Geienak plakatuta etorri ziran. Libertaderik ez. Ezta denborik ere. Egun gutxin Italia guztia korritu baitzuten.

Almansa'n geundela, granu aundi bat ateratzaidan besoan. Medikuagana joan nintzan, italianoa bera, ta arek:

– *Venite tutti, presto! Adesso, adesso!*

Zerari deitu, anbulantziari, azkar ibiltzeko. Ta artu ta Alicante'ra eramanez ninduten.

Alicante'n zegoan italiano mediku aundi bat, lodi-lodi bat; eta mai baten ondoan exeritatu jarri ta ebaki zidan granu ori.

Ala, kura egin ta bertan geratu nintzan. An ikasi nuan alkatxofak eta makarroia jaten. Ikasi bearko!

An etzuten uzten italianoak, ospitaletik inor ateratzen. Bañan guk zer egin genduan? Leiotik salta, an ere taberna bat billatu ta aratu joan.

An Donosti'ko gizon bat billatu nuan, Egia ballarakoa. Emen osasunik ez erreumarekin, toki legorra bear zuala ta Alicante'ra joan ta antxe bizi. Nik bera ez nuan eza-

gutzen, bañan andrearen aita ta osaba bai.
Berak esan zidan zer familitakoa zan:

– Olako ta olako ezagutzen al dituzu?

Ta nik:

– Ezagutuko ez ditut ba nik? Antonio ta Pedro!

Bi anaiak baitziran perratzalleak, eta aietako baten alaba.

Berriz ere leiotik sartu barrena ta ala pasa genituan amabost egun.

Gero, ospitalean paper bat eman zidaten:

– *Dieci giorni di riposo nel battaglione.*

Riposo, deskantsua. Amar eguneko deskantsua, serbiziozik gabe, pasatzeko bata-lloian. Orduan gerra bukatu berria zan, jendea etxera alde egiten asia, ta etzuten uzteñ iñor trenean etortzen. Bañan nik esan nuan:

– Bai? Au ez ditek entenitzen emengo interbentoreak.

Papera bear baitzan etxera etortzeko. Eta trena artu ta, Almansa'n barrena, Madrid'a etorri nintzan, *Mediodía*'ko estaziora.

An atera ta gero *Norte*'kora pasa bear. Bost kilometro edo ez dakit zenbat ziran. Orrera oñez joan nintzan, ta:

– *Hasta mañana no se puede entrar. Ya no hay tren.*

Bai? Aldamenean obra zar bat bazan ta

an lo egin nuan, ijitoak bezela. Bokadillo bat edo zeozer banuan ta ura janda pasa.

Urrengo goizean, seiretan-edo zegoan trenan onera. Joan nintzan ta atean interbentore bat. Eman nion papera, dana italianoz eskribitua, egon zan begira ta:

– *Está bien. Tenga. Pase.*

Ni, barrena. Artu trenan ta, bidean nentorela, beste interbentore bat. Eman nion ariere papera, begira egon zan, gero doblatu ta:

– *Tenga.*

Ala, martxa Donosti'raño ta etxeraño.

Gero, zortzi egun pasa etxean, ta berriz ere ederki jarrita, Almansa'ra, zeozer ere arako eramanda.

Bueltakoan ere, interbentore guztiai papera atera. Ura ondo gordeta eraman nuan nik, bai. Ta arek etzuan ezer besterik esaten: amar egun deskantsu emateko batalloian. Bañan interbentoreak etzuten entenitzen.

Presentatu nintzan konpañian ta:

– *¡Hombre! ¿Ya estás aquí?*

– *Sí, señor. Ya estoy aquí.*

– *¿Estás bien ya?*

– *Pues sí.*

– *Me alegro. Oiga, sargento: a éste no le ponga servicio esta noche.*

KATALUÑA

Andik Valencia'ra joan giñan, ta an egun bat-edo egin. Gero, Castellón'go probintzian barrena pasa giñan; bañan bertan geratu ez.

Or, trenean, dana naranja ta naranja ta naranja ikusten dezu. Ta, fruta-arbolak eta baratzak asten ziran denboran, erria bertan. Tipula-sail ikaragarriak, ordea; ta letxua ta arroza ta dana.

Gero, pasa erria ta, trena zijoan bezela, berriz ere naranja, naranja ta naranja. Ta, urrengo errira arrimatzean, dana baratza. Alderdi ori dana ola dago. Ikaragarri polita ura. Nik ikusi dedan tokirik aberatsena.

Gañera, oso epoka onean pasa giñan gu. Orduantxe zegoan eltzen albarikoke, arana klaudia ta dana. Arbola dotoreak.

Ez esan neri bi aldiz, ura berriz ikustera eta an egun batzuk pasatzera joan nai dedan.

Ikaragarri toki onak neretzako. Izugarri gustatu zitzaizkidan.

Toki askotan, dana naranja edo baratza ta segidan itxasoa. Ta dana plaia bezela.

Emengoa baño urdiñagoa aingo itxasoa. Garbi-garbia ta legun-leguna. Ez du zakarraldirik. Ez da ikusten olaturik, arrastorik ere. Mugitu ere ez. Emen, ordea, beti zala-partaka.

Urrena, berriz, Kataluña. Tarte ona du oso, Castellón aldetik, Barcelona'ra arrimatu artean. Or melokotoia dago asko. Ola mendi xamar, ta bestean naranja dan bezela, or melokotoi-sail aundiak. Urrak ere bai. Barcelona'tik beste aldera, berriz, mendi asko du.

Ripoll'etik aurrera joanda, Berga'ra ekarri ginduzten. Erri aundi samarra ori. Inguruan mendi aundiak. Euskalerriko posturako mendiak: gaztaña ta aritza ta olako arbolak.

Nik ez dakit, ba, zer zan ura, guk kuartela bezela genduan etxea. Izaten dira emakumeak sujetatzeko edo olakoak. Oietako bat zala uste det. Etxe aundi bat.

Berga'n egin zuan euskaldun batek bere burua il. Lagunai esan zien:

– Berriz etorriko nak.

Ta joan, berez menaka ez arrapatzen ta arbol bati adaxka kendu, fusillari jarri ta arekin disparatu.

Mutil bikaña zan. Ona. Ixil-ixilla. Ikara-

garri umilla. Zergatik egin zuan? Iñork ez daki. Bere lagunik aundienak ere ez. Etzion iñori ezer esan. Oiartzuarra zuan kaboa.

An denbora puska batean egon giñan, ta sei bertso auek jarri nituan:

Bertso berriyak ateratzeko
agindutzen dit barrenak,
utzi ditzagun alde batera
gure tristura ta penak;
esplikatzeko asmua daukat
nere jakinduri denak,
garbi esanaz gaur zein diraden
gerratik ondo daudenak.

Españi ontan gerra sortu zan
edo digute ekarri,
apenas onek kalte egin diyen
Aleman da Italiya'ri:
berentzat txartzat zeuzkaten armak
bialdu digute guri,
ta Españi'ko inozentiak
zillar da urriak berari.

Españiya'ko zillar da urriak,
gañera ardo ta gariyak,
aprobetxatzen ari dirade
Aleman da Italiya'k;
guretzat diru orde papera,
keatza dirui ogiyak,
entzuten dunak sinistra zala,
obek dirade egiyak.

Estranjeiak in alkar artuta
gerrara ziran atera,
gosiak zeuden amorratzen da
gobiernua jatera,
eta gañera Euskal Erriyak
berarenganatutzera;
artuagatik utzi biarra
etorriko da atzera.

Jaungoikuaren legien billa
dabilzala dute esan,
juanagatikan errezo gutxi
egiten dute elizan;
bi urti ontan mendiyan gaude,
mezetan ez gera izan,
bai Jesukriston birtutiakin
ateria izan bazan.

Dozen erdira osatu ditut,
ixildu egin biar det nik,
ortik aurrera segitutzeko
ez baitadukat indarrik;
leno gosiak bakarra zegon,
orain sentizen degu bik,
denak dakigu: ezta ostotzen
igartutako arbolik.

Batzuek negozioa egin baitzuten. Egingo
etzuten ba? Baita soldaduak ere. Beti badira
berenez artarakoak diranak.

Infanteria sartzen zan erri batean aurrena.
Gero, sanidadean ta olakotan ziranak. Oie-
tan, makiña bat erropa ta makiña bat gauza

txe ekarriak baziran. Guk dana jakiten genduan.

Andikan Villafranca del Panadés'era bota ginduzten, eta kintoak giñanak danak alkarrekin sartu, batalloi batekoak eta bestekoak.

Villafranca del Panadés ori erri aundia da. Kuartela ere badu; txiki bat. An illabete-ren bat-edo pasa genduan.

Erri artan geundela, jenerala edo ez dakit zer zan an, ta egunero eskuadra bialtzen zuten aren etxera guardirako. Egun batean guri tokatu ta lagunai esan nien:

- Nik, arrantxoa etortzerako, matsa ekarriko diat, eta postretako jango diagu.

- Bai. Ekatzak, ekatzak.

Joan naiz, masti batean sartu ta mats tartean exerita jarri. Jan nuan naikoa ta artu mordoia lagunentzako. Al nuan guztia. Altxa ta ateratzen asi naizenean, nagusia bertan. Asi zait katalanez erritan aiton ori:

- *Prapapa-prapapa...*

Erdia ere ez nion konprenditzen, baña zeozer bai, ta nik euskeraz itzegin berari.

Ura entzun zuanean, ixil-ixilik geratu zan. Beraren ondoan barrena pasa nintzan, ta euskeraz nik segi, bañan ezta itzik ere geiago arek. Bere artean esango zuan:

- Alemana edo zer ote da au?

Ez baitzuan euskaldunen berri izango. Orain guk badakigu izkuntzak zer diran, eta

aiek ere jakingo dute. Bañan garai aietan, Donosti'ra etortzen zan katalanari, eta inglesari ta edozeñi berdin, izketa diferentea nabaitzean, danai prantzesa esaten genion. Ta ari ere olako zerbait pasako zitzaion.

Lagunai kontatu diet eta aiek parrak egin zituztenak!

– Ik egiteko ez dek asko! –esaten zidaten.

Nik matsa eraman nuan beintzat, eta jan ere bai danok.

Gero, andik Hospitalet'era eraman ginduzten. Barcelona jotzen duala dagoan erri bat da, emen Altza ta Donostia bezela.

Barcelona pixka bat ezagutu genduan. Bañan ez giñan or denbora askoan egon. Obe, gañera. Illak noiznai azaltzen baitziran kalean. Edozein gautan bi edo iru. Soldaduak; eta paisanoak ere bai.

Danak etziran Frantzi'ra itzuli joan ta armatuak zeuden. Jendea or nastu zan dana. Berezi ta garbitu bitarte, bai al dakizu zein zein dan eta nola dabillen? Batenbatzuk etxeetan gordeta baldin baziran ere, ezin jakin.

Egunez etziguten uzten edozein moduz paseatzera ateratzen ere. Geren matxetearekin eta erne ibiltzeko. Kuadrillan gañera. Ta illuntzerako kuartelera.

Gabean, berriz, patrullak guardian. Sarjentoa sei-zortzirekin emen, ta or besteak, eta geratu gabe. Oso bijilatua egon zan, denboretan ere, Kataluña alde ori.

ETXERA

Hospitalet erri ortatik bialdu ginduzten etxera.

Gerra bukatu ta 28, 29, 30, 31 ta 32'koak, oiek segituan lizentziatu zituzten. Illabete bat edo bira, 33'koak; gero, 34'koak; eta urrena, 35'koak. Andik illabete pare batera-edo, 36'koak.

Gu 37'koak, urrena gure txanda, bañan beste iru illabete-edo pasa genituan.

Beste kintak etxera zijoazen bezela, gu egin ginduzten, beste batalloietakoak eta danak, pillaka batera bildu.

Ta gurea etorri zanean, bai poz ederra! Kuarteletik saltoka uste det atera giñala. Bakoitza berearekin kontentu giñan gu orduan.

Guri eman ziguten, gipuzkoarrai, Goierri aldetik asi ta Irun bitarteko guztientzat,

paper bat. An danon izenak jarri ta pase arekin etorri giñan.

Eta Naparroa'n-da jetxi bear zutenai beste paper bat, ogei edo ogei ta amar mutillentzat. Beste agiririk ez genduan guk ezer ere ekarri.

Trenak erri guztietan egiten zituan geldialdiak, ta igual bi orduan egon. Orduan ola ibiltzen ziran.

Ez dakit zenbat denbora pasa genduan, onera etortzeko. Egun t'erdi edo bi egun, bai. Gaba ere trenean. San Migel eguna bidean uste det tokatu zala.

Arrantxua artua genduan irtetzerako. Gero ere, ez dakit nola moldatzen giñan, bañan zeozer sortuko genduan andik edo emendik. Ta erdia janda ibiltzen ere ikasiak geunden.

Egunen batean egin bear genduala jira bat esaten genduan, lengo toki aiek berriz ikustera. Bañan oraindik ez da allegatu. Bakoitza geren tokietara etorri giñan ta bakoitzak bere etxean naiko lanak bazituan andik aurrera. Ola geratu zan. Bañan orduan bazan asmoa.

Bertsotan ere egin genduan. Santiago Oiartzabal, eritu ezker, etzan geiago joan. Bañan Axintxio Urrestilla ta biok ixildu ere ez. Erotu ere egiten giñan gu orduan bertsoekin ta segi kantari.

Kaletarrak oso gutxi ziran gure artean. Aiek, oponio pixka bat zutenak izaki geienak

eta Bizkai aldera-edo joanak ziran. Ta beste aldeko oponioa zutenak, aiek reketeetan-da sartuak.

Baserritarrak, berriz, etxean geratu. Gero kinta deitu ta joan egin bear. Orregatik, geienak baserrikoak giñan gu.

Bein trenan Gipuzkoa'n sartu zanean, Segura ta orkoak baziran ta asi zan toki guztietan jendea jeixten: Zerain'goa, Andres Oiarbide. Gabiri'koa, Martin Urkiola; itxutua dago orain.

Legorreta'koa, Joxe Garikano. Alegi'koak, Prudentzio San Migel, bat. Bestea, izena ez dakit. Euskalduna, bañan Martínez apellidoa. Tolosa'n bizi zan gero; biziko da noski.

Abalzisketa'koa, Antonio Etxeberria. Ta Amezketak'koa ere bai, beste Antonio Etxeberria.

Tolosa'koa, Prudentzio Arratibel. Andoain'goa, Joxe Santa Cruz. Bestea, Ladislao Mujika.

Urnieta'koa ere bazan: Antonio Mujika. Ta beste bat ere bai; bañan izena etzait orain gogoratzen arena. Beste konpañietakoak eta danak batera baigiñan.

Ernani'koa, berriz, Juanito Zampirain, Joxe Elortza ta Dionisio Uzarraga, Kaletarra ori. Bestea, beste konpañi batekoa, izena ez dakit, bañan Artola zuan apellidoa arek. Ere-

ñozu'n bizi da gaur. Bestea, orain berriro ikusi det gañera, Felix Aramburu.

Donosti'koa, gurekin ibilli zana, kalekoa, Frantzisko Espinosa. Orio'koak, Joxe Mari Lazkano ta Eleuterio Esnal. Illa da au.

Ni, Donosti'n jetxi ta segituan, estaziotik zuzen, Egia'n beetik gora, etxera joan nintzan, Otxoki'ra. Ez nuan egin bestetara biderik. Eguardi-aldea edo arratsalde-garaia zan errezeloa daukat. Argitan beintzat.

Etxean zai-zai zeuden. Periodikoan irakurrita-edo, bazekiten lizentziatuta geundela. Bidean edo nunbait ere or giñala pentsatzen zuten.

Bañan *eup!* egin nuanean, danak kontenttu. Ama, lepotik eldu ta zer egin etzekiala.

Nik lenengo lana, zarpa zarrak danak kendu, andik ekarri genituan erropak, eta etxekoak jantzi.

Andik aurrera, jan ta edan gogotik, apetitu ederra ekarri genduan guk-eta. Orduan etzan gaitzik eta ezer ere.

Bañan urrengo egunetik-edo, segituan asi lanean. Nik lanik gabe orain daramazkit urte batzuk; bañan lenago lanik gabe ez naiz egon bein ere...

(1941)
ESTROPADA

Orduan ere Orio ta San Juan zebiltzan famarik-fama, arraunlari onak zirala-ta, eta iñork etzuan Ondarrabia aitatzen.

Urte artan ere bulla aundiarekin etorri ziran Donosti'ra.

Oriotar bat bertsoak jartzen ta saltzen ibiltzen zan, ta arek bertsoak jarri zituan, estropada jokatu baño len, irabazitako kontuak esanez. Bañan zer dek eta Ondarrabia'k irabazi.

Neri orduan bertsoak jarri bear nituala bururatu, eta bai jarri ere.

Kuaderno batean iskribitu nituan eta antxe egon dira gaur arte.

Inprentara eraman gabe gelditu ziran. Nik ez det inprentatu bein ere bertsorik. Neronek jarri ta etxean gorde.

Ori bai: tabernan edo lagun artean kantatzen nituan batzutan. Ixildu ere ez askotan.

Milla beatzireun berrogei eta
lendabiziko urtian,
estropa eder bat izandu degu
Donostiya'ko partian;
demanda ori izandu dute
sei txaluparen artian,
amaika trabes jokatu zuten
portaletako atian.

Agorrillaren zazpiyan zuten
lendabiziko demanda,
Ondarrabiya sartu da aurrena
arraunai fuerte emanda;
iru segundoz urrena San Juan
nola zeuden ondo janda,
oso apustu estua zuten,
gauza polita izan da.

Irugarrengo puestuan zan
Oriyotarra gelditu,
Loiolatarrak oien atzetik
fuerte ziyoten segitu;
gero bandera jokatutzeko
lau obek dira unitu,
azkenian e lengo bentajak
guziyak bentzutu ditu.

Oriyotarra aurrena baietz
doblían zegon trabesa,
Ondarrabiya'k irabazi du
makiña bat interesa:
premiyo ona, bandera ederra,
Kantabriya'ko grandeza;
oraingu ontan bukatua da
oien ikusi nai-eza.

Jendien autan San Juan da Oriyo
juzgatzen ziran lenbizi,
Ondarrabiya zenbateño zan
iñork ez baizun ikusi;
atera orduko denen aurretik
aguro juañ zan igesi,
Roman Agirre kuadrillarekin
jarri da denen nagusi.

Juañ dan urtian oriyotarrak
jarri zituan bertsuak,
esanaz Kosta Kantabri (y) ontan
berak dirala indartsuak;
gauza onikan sekula eztu
kuadrilla arrunkosuak,
oiei zer egin ondo badaki
Ondarrabi'ko maisuak.

Gure Ondarrabi maitagarriya
juzgatu arren atzian,
paliza ederrak ematen ditu
noizik eta bakoitzian;
guziyak pozez betiak daude
banderaz akordatzian,
tristexiago egongo dira
aurten Oriyo-ertzian.

Bidasoa'ko iskiñan dagon
koadrilla nai det gor'iyο,
Ondarrabiya kontentu dago,
tristetu zaigu Oriyo;
San Juandarrak aldamenetik
segitzen ziyon seriyo,
ondo probatu dirade eta
onentzat eztu baliyo.

San Juandarrak bandera baietz
bazegon naiko trabesa,
dirua asko jokatu dunak
seguratu du pobreza;
Ondarrabiya'k irabazi du
makiña bat interesa,
jendiak ala uste zun baño
ezta kuadrilla eskasa.

Apustu onek ekartzen ditu
pozbidia ta negarra,
aurten Oriyo'n egin omen du
arriya ta kazkabarra;
eskarmentuan sartzeko ere
bazan zerbaiten biarra,
aurten ordaindu egin diyote,
iyaz egin zuan parra.

Donostiya'ko *Txinparta*'k ere
fuerte jo zuen lanian,
kontentu asko gelditu ziran
bosgarren sartu zanian;
Sestao'kuak seigarren ziran
beren arraunketa onian,
geixiago egingo dute
urrena datozenian.

Dozena't bertso osatu ditut
estropadaren gañian,
aurten aitatu dirade obek
jendiaren mingañian;
Ondarrabiya goratutzen det
beste edozein añian,
adios, kuadrilla maitagarriyak,
bizi estadu onian.

OTXOKI NERE JAIOTETXEARI

Guk ez genduan lurrik gurerik. Gure baserria, Otxoki izena, Merry del Val markesarena zan.

Bizkai aldean ere finka ikaragarriak zituan bereak. Emen ere bai. Kristobaldegi'ko komentu ondoan baserria da. Ortik asi eta Loiola aldera, terreno oiek ere orrenak ziran.

Bañan *expropiazioa* egin zuten ta lau urtean bertan egon giñan, errentarik-eta bate-re pagatu gabe.

Gero etorri zan ordena kolpean ateratzeko, etxeak ustutzeko.

Gurea bezela, beste baserri batzuk ere bai: Arruex, Ondarralde bere egiazko izena pape-retan; Arjel-etxeberri, bi bizitza; Arjel-aundi; Arjel-txiki; Xiustegi; Zarategi, bi bizitza; Lizardi; Basatxiki, bi bizitza; Sagastieder; Baratzategi; Tuniz; Tuniz-berri; Igola; Xibili-txiki ta Xibili-aundi.

Guk geixeago egon nai genduan, ganadua saldu arte.

Bañan esan ziguten len ere lau urtean egon giñala ta lenbailen ateratzeko.

Gobernadorearengana ere joan ta egin genituan orko bueltak.

Bañan danetik berdin esaten ziguten: ordena goitik zetorrela.

Gobernadorearen sekretarioarekin bi edo iru aldiz egon giñan ta arek esan zigun:

– Egon lasai, nik esan arte.

Ala, gero berak esan zigun:

– *El lunes va a ir la guardia civil, porque tengo que pasar ya el papel. Ahora tenéis que marchar.*

Guk ordurako trasteak artu ta onera ekarriak genituan.

Ganadua, berriz, Uba'n jarria genduan, koñaduaren etxean, reformatorioaren ondoan, arreba bizi zan etxean.

Nik an, zelaiean, baneuzkan erramulatxa ta belar ondua. Eta lanean zortzi ordu pasa ta ara joaten nintzan, bazkaria etxetikan artuta.

Ganaduaren jatenak egin eta Uba'ra eramaten nituan. Ola moldatu nintzan.

Igandea zan guk alde egin genduanean, ta astearte-arratsaldean etxea botatzen ari ziran, kutxareakin. Uba'tik nentorrela, orixe ikusi nuan.

Ordurako etsiak geunden. Ala ere, pena ederra eman zidan.

Penagarriagoa izan zan, ordea, andik alde egin bearra. Alde egin ondoren, ia berdin zan.

Gero, emen denbora-pixka bat artzen nuan, ta bertsoak jarri bear nituala ta auek jarri.

Bertso oiengatik notizi ugariak izan nituan. Toki askotatik etorri zitzaizkidan, ni ezagutzeagatik.

Alegia, olako pasamodua berai ere pasatakoa.

Billabona'koa ere bazan. Gure auzoko gizon bat, zarra zan ta orain illa da, bañan arek ala esaten zidan:

– Alakok iri eskumiñak emateko esaten dik, eta ezagutzeko gogoia ere badaukala.

Bera ere alako pausotan ibillia, ta gure auzoko orrek bertsoak biali.

Makiñatxo bat izango dira gaur Euskalerrian, gauza bera gertatua.

Orregatik, bertso oiek askok aitatu zizkidaten.

Etzidan iñork kargurik artu. Bañan gauza asko esaterik ere etzegoan orduan. Gaur bezela libre egon balitz esatea, oraindik aundiagoak izango ziran.

Bertsoak auetxek dira:

Bertso berriyak jartzera nua
gutzizko borondatian,
milla beatzireun irurogei ta
zortzigarrenge urtian;
zer gertatu dan esan biar det
Intxaurrondo'ko partian,
nere barrena ez dago lasai
guziyak jakin artian.

Asarre xamar artu gaituzte
oso gorroto gogorrez,
geren etxetik ateratzeko
desapiyoka egurrez;
andre ta gizon, zar eta gazte,
guziyak oien beldurrez,
illabetian famili asko
egondu gera negarrez.

Alare oiek segitzen zuten
beren gorroto txarrian,
makina aundi bat jartzen ziguten
geren etxien aurrian,
esanaz: «Ordu asko baño len
ikusiko da lurrian!»
Zenbat naigabe pasa ditugun
geren baserri zarrian!

Emeretzi etxe bota dituzte
illabeteren barruan,
famili askotan beidatu gabe
zer miseriya dagan;
bizitzen ere etzegon errez
olakuaren onduan,
baserriya ala utzi biarra
pena galanta genduan.

Auxen da lana ezin arturik
biar dan pazientziya,
gure biyotza erdibitu da
etxia orla autsiya;
kalian bizi biar degula
artua degu etsiya,
nik galdetutzen dedana au da:
Nun dago kontzientziya?

Gure denbora pasia degu
beti baratzan lanian,
eguneroko ogiyen billa
ain borondate onian;
uste ez genduen ekaitz gaizto bat
gañera etorri danian,
iñundik ere anparo gabe
utzi gaituzte kalian.

Abenduaren irua zan au,
Santa Barbara bezpera,
egun orretzaz bizi gerala
beñere aztuko ez gera;
aita ere egun ortantxen juan zan
mundu ontatik bestera,
oi t'amairu urte ziran eunian
etxia bota ostera.

Ni naiz Otxoki deitzen nautena,
ola zan gure etxia,
neronen bistan egokitu zan
tellatuak lur jotzia;
ura ikusita nere barruak
pasatu zuben trantzia,
nere biyotzak dadukan penik
ezta posible kentzia.

Gu bezelaxe famili asko
dirade errukarriyak,
baserritikan bota gaituzte
ta kalera etorriyak;
batzuek dira amona zarrak,
beste batzuek elbarriyak,
oientzat ere iritxi dira
munduko egun gorriyak.

Jaiotzetikan oituak geunden
baserri zabal batian,
kanpo-lanian jarraitu degu
juan diran zenbait urtian;
egun batetik bestera danok
sartu gaituzte lurpian,
orain kalia bizi bearra
lau paretaren tartian.

An utzi ditut aran-arbolak,
utzi ditut gereziyak,
an utzi ditut piko ta udare,
sagar gez eta gaziyak;
nere biotzan zain bana dute
an dauden arbol guziyak,
nere barrena samindutzen du
orrela galtzen utziyak.

Ara amabi bertso nun dauden
Patxi Otxokik jarriyak,
goratu nairik lurperatuta
utzi diran baserriyak,
gure zelaitan gelditu diran
arbola maitagarriyak;
oraingo txandan puska goxorik
galdu du Euskalerriyak.¹

¹ Bertso auek *Zeruko Argia* astekarian argitaratu ziran, 1979-I-28'an. Baita 2, 3 ta 6'garrena *La Voz de España* egunkarian, 1975-XI-5'an, Basarriren sallean.

OTXOKI NERE JAIOTETXEARI BIGARREN ALDIZ

Banuan beste sail bat ere Otxoki nere jaiotetxearentzat. Bigarren goi, andik urtebetera jarria. Berak esaten du. Bañan bertso auek etziran iñun azaldu:

Urte aundi bat igaro ondoren
berriro biar det asi,
gure bizitza nola dijuan
nai nuke adierazi;
len baserriyan oitua nitzan
ta gaur kalian naiz bizi,
bertan tapatuko ezpaziraten
etorri nitzan igesi.

Aitortuko det kale-etxian
ni zeñen triste nagan:
txori txiki bat kaiolan sartu
ta egoten dan moduan;
lengo paraje zarrak ikusten
izandua naiz lenguan,
esatia ere lotsa ematen dit
zeñen arlote dagan.

Gure arbolak bota dituzte
piko bat izan ezian,
txantxangorri bat moko luzia
zegen bere babesian,
adar gañetik beira jarrita
zedozer esan nai zian:
bakardadian triste zegola,
ta ondoren segitzen zian.

Txoritxu ori agurtu nuben,
buelatu nitzan atzera,
kale aldera jetxi asman
lengo biria artzera;
txepetxa ere an azaltzen da
txantxangorriyen antzera,
uste det ura etorri zala
nun nebillen galdetzera.

Xalapartaka egan egiñaz
etzan irteten aurretik,
ark etzuela iges egin nai
bera jaio zan lurretik;
zaukazkin penak erakutsitzen
saiatutzen zan gogotik,
lengo penaren berri-aldi bat
artu nuan beragatik.

Oiek utzita igo nitzaden
goiko Ametzagañera,
piska batian an egon nitzan
begira andikan bera,
neroni jaio ta azi bitarte
bizitu nitzan lurrera,
esanaz: Gure baratzen frutik
ez dek emendik aurrera!

Auxen da lana, eziñ aspertu
gertatu dana esaten,
nik berriz ere adierazten det
jendiak jakin dezaten;
juan dan urtian triste nebillen
eta tristeago aurten,
kale-etxeko paretak ez du
fruta berririk ematen.

Nere denboran kale-zalia
egundaño ez naiz izan,
erremeiorik etzeguen da
orreatatik jetxi nitzan;
orain jendiak jakin dezala
zer posturretan gabiltzan:
kaiolan sartu ta erdi gosiak
daguena txoriyen gisan.

Negar-malkuaz bustitzen ditut
arpegiko bi musuak,
sentimentuaz lagundutzen dit
barrutik biyotz gaxuak,
diran bezela adierazteko
munduko nere pausuak;
ez dakiyena jakin dezaten
orra nik jarri bertsuak.

Gaur kaletikan kantatutzen det
ta baserritik lenago,
garai batian bezin alaia
nere biyotza ez dago;
mingaña daukat kantari baño
memoritik urri nago,
bertso obiak jarriko nitun
barrutik trankil banego.

GAUR ERE BERDIN

Bertso au gau batean lantokian jarri nuan.
Lagun bati kantatu ta ark gogoan jaso.

Badira ogei urte paseak, baña gaur ere ber-
din dago mundua:

Ejito ta Israel'dik
dira notiziyak
oso itxusiyak:
gerra gogor batian
dirala asiyak.
Ejito'ri lagundu
nai diyo Rusiya'k,
israelitai berriz
ingeles Fraitziya'k;
or nastuko gerade
munduko guziyak.

BERTSOLARIA

Bertsotarako zera berez etortzen da, ttikitandikan. Ortaz gañera, gure etxean, Otxoki'n, taberna genduan eta an zerbait entzun ere bai nik.

Len ere esan bezela, garai artan bazan or Altza'ko bertsolaria, Patxiku Amueder. Arzak apellidua.

Antigua'n bizi zan. Amueder baserrikoa bera ta igandean orrera etortzen zan, ta ortikan bueltan gure etxera sartu.

Beste aiton bat ere bazan emen, Baratzategi'koa, bertsotan pixka bat zekiana, ta ari kantatu; ta aiton orrek erantzun ta ola aritzen ziran.

Txirrita ere bai; aritu izan zan gure etxean, gu gazteak giñan baña.

Joxe Zapirain ere bai; Joxe Bordaxar. Nik

obeditu egiten nion ta nerekin ondo etortzen zan. Esaten zidan:

– I, ator onera. Aditzik bertsoak, aditzik: au ola ta ola kantatua, ta beste au ola botea.

Aiek kantatutakoan:

– Orain berriak kantatu bear dizkiagu.

Aiton aiekin asi nintzan ni. Orduan asko aritzen nintzan.

Bein batean, zelaiean nitzala, Joxe Bordaxar ori konfesatzera Atotxa'ko praileetara joaten zan, Otxoki'tik pasa bear ta onela esan zidan:

– I, ator onera. Orain irurogei urte, amazazpi urte nituala, jarritako bertsoak, aditu bear dituk.

Arek boza motxa zuan. Boza motxean aritzen zan ia beti ura, ez baitzuan eztarririk.

Sei bertso ziran. Bañan ni baratzen ari nintzala etorri ta kantatu zizkidan, ta iru gogoan jaso nituan, ordurako mutil zar bati zeozer adituak neuzkalako. Bañan besteak ez nituan ikasi, ta Zapirain'en liburuan dauden ere ez dakit.¹

Auetxek dira:

Pasadizuak esan
biaitut itz biyan,

¹ Orain arte eskuratu ez-ta, ez daude bertso auek *Zapirain anaiak* liburuan, *Auspoa*'ren 123-4-5'an.

egun siñalia zan
Martxuan zazpiyan.
Urrutixkotik baño
ikusi nizkiyan:
mutilla gañian da
neskatxa azpiyan.

Perretxiku-lekuan
zuten komeriya,
lendabiziko egin
zuten bazkariya.
Ikusi nionian
kamisa txuriya,
neroni're eman zidan
naiko inbiriya.

Saio bat egin dute
tira eta bultza,
alderdi guztiyetan
belarra ta autsa.
Izkutuan ibilli
baziraden utsa,
zakurrak e badute
oik ainbeste lotsa.

Bertso on asko zuan arek. Bertsolari xuxena zan.

Txirritarekin ere aritu izan naiz, 1935 urtean.

Txapelketa izan zan Donosti'n, ta ura, Donosti'ra etortzen zanean, Kale Easo'ra joaten zan, *Bar Manolo*'ra.

Ta Xebastian Salaberria lagun aundia nuan. *Ankamotxa* esaten diogu guk. Alkarrekin asko ibiltzen giñan, arek bazekian ta esan zidan:

– Goazemak ara.

Joan ta Xebastianek kantatu zuan lenbizi, ta nik gero. Txirritak ere bai. Baita Xegundo Kalonje'ren osaba Linok ere.

Saiburu'rekin ere kantatu izan det. Gu San Marko'ra igo, bera ia bertan bizi zan ta etorri, ta askotan aritzen giñan.

Gerra ondorenean, berriz, Donosti'ko *La Perla*'n jarri zuten bigarren mallako bertsolarien txapelketa. 1946 urtea zala uste det.

Bi bertso baditut nik, an kantatu ta gogoan artuak. Batean, puntua onela jarri zidan Basarrik:

Oso torero ona
gendun Manolete...

Nere erantzuna:

Arek biar baño len
ordu danak bete.
Bere lantegi ortan
saiatzen zan fuerte,
orain argatik dago
gugandik aparte.

Bigarren puntua:

Gustatutzen al zaizu
kafe ta purua?

Nik:

Askotan artxek nastu
izan dit burua;
gaur ere artu dedala
gauza segurua,
ta ezin detenian
nere apurua!

Zenbat bertsolarik kantatu genduan ez dakit seguru. Amabi edo amalau izango giñan: Astigarraga'ko Inazio Berasarte zana, Elio esaten ziotena, onek irabazi zuan txapela; Joxe Mari Iriarte, oiartzuarra, bigarren geratu zana, il zan ura; bestea, Mujika, Zizurkil'koa; bestea Jesus Eskisabel, Legorreta'koa, bertsolari polita, gure kategorian onenetakoa, Jainkoa esaten ziotena, il zan ura ere; Manuel Lasarte, au gazte-gaztea orduan, au bostgarren utzi zuten.

Bestea, Iturbe, orain Lasarte'n bizi da, ori ere Zizurkil'koa; bestea, Etxeberria, Urnieta'koa uste det zala. Bañan geiago ere baziran.

Lasarte, nere iritziz, besteak baño askoz ohea orduan ere. Bañan juezai ez ola iruditu, ta aiek erabaki bezela joan zan.

Juezak auek ziran: Don Benantzio Rekalde, oiartzuarra, beterinarioa; Antonino Pago-

la, Ernani'koa; ta Txomin San Sebastian, Astigarraga'ko sankristaua.

Bost aurrenekoak klasifikatu ziran. Gero ez dakit nora joan ziran; Azpeiti'ra-edo. Ta besteak ez dakit zein tokitan geratu giñan.

Amarna duro pagatu ziguten, ta gutxi al da? Orduan asko zan. Gañera, zortzina bertso kantatu genduala uste det, eta amar duro?

Bañan ura etzan nere gustora erabaki ta geiago ez naiz txapelketara agertu.

Intxaurrondo'n bi bider kantatu izan det festetan. Loiola'n ere bai bi urtetan. Martutene'n ere bai iru lau aldiz. Oietako batean, Uztapiderekin.

Martutene'n Agorraren 8'an egiten ziran festak. Ama Birjiña Guadalupe'koa esaten genduan guk, ango eguna izaten da-ta. Aurten ostegunarekin egokitu da, ta orduan ostiralarekin.

Basarri ta Uztapide ziran etortzekoak. Uztapide etorri zan; bañan Basarrik iganderako zala entenitu.

Gu ere ara joanak bertsolariak aditzeagatik, orduan danekin saltsan aritzen giñan-da, eta Uztapide bakarrik.

Beste bat ere bazan an: Joxe Kruz Lasarte, Flores'koa. Bere gustora asten zanean, poliki aritzen zan. Bañan jendearen aurrean etzuan korajerik.

Lenengo, ari esan zioten:

– Igoko al ziñake?

Ta arek:

– Ni? Ezta milloi bat emanda ere.

Orain milloia ez da ezer; bañan garai aietan milloiazen izena bakarra genekian guk.

Orduan neri esan zidaten. Esan nioten:

– Neri etzidak inportik, motell, begira egon edo or bertsoetan ari.

Ala, Uztapiderekin aritu nintzan. Dotore gañera. Olako lagun batekin errex. Arek bi-dea ederki jartzen baitzuan. Arek, lan egiteko tokia berak ematen zizun.

Bañan nere bertsoerik ez daukat gogoan. Esan izan didate:

– Ik ola ta ola kantatu uan olako tokitan.

Batean, *Erbia* esaten zioten bati, onela kantatu omen nion:

Nik ganaduak etxian dauzkat
erdi gosiak ta otzak,
erbi zar onek jaten baiditu
gure zelaiko pagotxak.

Ola sakatu niola. Bañan ori bertso erdia da. Neri bai lagunak osorik esan. Bai beste asko ere. Bañan bertso oiek gogoan artzeko memoririk ez det izan nik.

Gazte denboran, bertsolarien atzetik ibiltzen giñan. Esan nai nuke, batek:

– Bertsolariak nun dituk?

Besteak:

– Alako tokitan.

Ta ara joaten giñan.

Orain, berriz, batere ez naiz joaten. Gustatu bai, bañan boletan eta tokan ibiltzen naiz. Ara joanda, bearbada batek esango dit:

– Bertsolariak ari dituk.

Orduan ni, aiek aditu gabe, ez naiz geratuko. Bañan ez naiz, len bezela, beste zer egiñik gabe joaten.

Ez da garai batean bezela kantatu ere egiten orain bertsoa.

Oker pixka bat, nik esan baietz, gaiak jartzen ari diranak ere badute. Bertsolariak aña jakin bear du gaiak ondo jartzeko. Bertsolariak esaten diote:

– Zu au zera, zu ori zera, ta ola ta ola ta ola...

Konparazio:

– Zu onen nobioa ziñan; ori, zure andre-gaia. Zuk au esan zenion; orrek au esan zizun. Asarretu egin ziñaten. Gero, au ta ura ta beste ura egin diozute alkarri...

Ez, et, et!... Nora oa? Ez, jauna, ez. Bertsolariak etzaio sekulan esan bear zer dan pasadizoa. Esan zaiozu:

– Zuk egin bear dezu ofizio au. Zuk ofizio ori. Nai dezutena kantatu.

Len esan bezela, senar-emaztegaiak baldin baziran, esan:

– Senar-emaztegaiak ziñaten. Zerbait oke-
rra izan dezute zuen artean. Iruna bertso.

Utzi bertsolaria libertadean. Berak atera
bear du gai. Bestela, esplikazioa emanda, gero
aren gañean kantatuko du.

Onak daude, asko jarriak daude ta ondo
aritzen dira, on oiek beintzat. Bañan ez da ori
pulamentua.

Batean esan nion emengo gai-jartzalle
bati. Amorratua bera bertsotarako. Ekarri zi-
tuzten bertsolariak, gaiak jartzen asi ta seku-
lako esplikazioak berak eman.

Asko estimatzen nau, ikusi orduko salu-
datzera segituan etorriko da, orduan ere etorri-
zan ta ola esan nion:

– Ori etziok ondo.

– Zergatik ba?

– Ez dek ikusten, erorrek esan dekela,
aiek esan bear duten gauza? Ik esaiek: Zu
izango zera notarioa, ta zu tratantea. Zuek
jakingo dezute zer egin bear dezuten edo zer
egin dezuten. Bota iruna bertso.

– Bai; ikusiko degu –esan zidan.

Urrengo urtean, askoz ere itxura obean ja-
rri zuan gauza.

Esan nai nukena da, etzaizkidala gus-
tatzen toki askotan jartzen dizkaten gaiak eta
jartzen dizkaten bezela. Ez diote uzten tokirik
lan egiteko.

Geienez ere, joan ta esan:

– Erriko alkatea ola degu: festak ola mol-
datu dira; komisioak ola egin dute. Bota iezue
dozen erdi bat bertso.

Edo bestela:

– Apaiz berria, edo mediku berria, etorri
da errira. Jendea oso gustora dago. Ea zer esa-
ten diozuten gizon oiei.

Utzi bertsolaria bere gisa. Berak aterako
du zer esana.

Garai batean, Txirritak, erri batera joan ta
galdetuko zuan:

– Zer da?

Ta:

– Alkatea olako erritatik etorria zan onera
bizitzera, olako etxetan ezkondu zan, ta ori
daukagu orain erriko buru.

Pixka bat naikoa izaten zuan arek dana
gubernatzeko. Ori, berak atera bear dute
bertsolariak.

Ez, ordea:

– Zu au zera, zu ura zera. Onek oni au
esan bear dio; orrek oni au ta au esan bear
dio...

Aiek zer esango dute orduan? Toki asko-
tan ez dakite, nere iritzirako, gaia jartzen. Nik
ola pentsatzen det.

Ainbeste ditu arek eta esango dizut Txirri-
taren egun bateko pasadizoa.

Altza'n, garai artan, bi mediku ziran. Don

Leandro ta don Inazio. Bertan bizi ziran biak.

Larunbatean bi medikuak Martillune'ko tabernan tokatu dira, ta asi dira Txirritari eman ardoa ta eman ardoa, ta Txirrita kantatu ta kantatu, ta ikaragarrizko jornada arrapatu du.

Nunbait ere, an ondoan bizi zan baserritar batek zaldi-karroan eramaten zuan Txirrita etxera bestela ere; ta, jornada kargatzen zuan, zer erremedio.

Eraman du ta urrengo egunean lenengo mezetara etorri dan jendea segituan enteratuda:

– Atzo, ola ta ola medikuakin ta egundoko jornada eramán omen dik Txirritak.

Ala, Txirrita meza nagusira-edo atera da etxetik eta illea artzen asi zaizka besteak. Baita Txirritak aguro jan ere, ta:

Ikusten badet zabal dagola
tabernetako atia,
pekatu dala iruditzen zait
an sartu gabe juatia;
gure erriko bi medikuak
pikaro xamarrak-tia,
bartarratsian biali naute
pipa bezela betia.

Besteak nun illea artuko zioten ta dana berak esan. Berak aurea artu. Orain ura joanda. Zer esan bear diozu zuk ari? Ori da bertsolariaren talentua.

Esan nai nuke: lan egiteko tokia utzi. Andik aurrera berak esan bear du. An ikusten da grazia ta abildadea.

Beste batzutan, bertsolariak entzutera joan ta nere artean askotan esan izan det:

– Bertso orri txalo jo?

Azkeneko puntuan disparateren bat esan duala ta atzaparrak puskatzeraño txaloo... Askori esaten diotet:

– Bertsoak lau puntu izaten dizkik. Ez bat. Ta lauak bear ditu onak. Azkeneko puntua ederra bota duala ta txalo jo ari? Neretzako ez dek ori bertsoa.

Olakoak bertsolari txarrak ere ez dira. Bañan ez oso-osoak ere. Tarteko zera ortan ere bear duala esan nai nuke talentua gizonak.

Lasarte batengana baldin bazoaz, ez al dezu makinaz eskribitzen ikusi? Emen asi ta emen bukatu, ta dana berdin. Lasarte'k ez du bidean okerrik ibilliko. Arek zuzen asi ta zuzen eraman, ta lau puntu izango ditu aren bertsoak.

Uztapide zanak ere olaxe egiten zuan.

Orain, berriz, bertsolari koskorra asko dabil. Gazte asko ere ikusi ditut, eta nere artean:

– Emen etziok aurrerakorik.


On-onak, esan nai nuke, ale-ale batzuk daude orain ere, len izaten ziran bezela.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

(101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.

134. *J.M. Arrizabalo - A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori.
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan.
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea.
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.



AUSPOA
LIBURUTEGIA